



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko maiatzaren 6a

37. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### G SAILA:

#### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Iruñeko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (2. or.).
- Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (15. or.).
- Beriaingo Udalari eta Morelucea hirigintza sozietateari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (33. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Iruñeko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urtarrilaren 31n eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Iruñeko Udalari buruz eginiko fiskalizazio-txostena, 2000ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2011ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **Iruñeko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- I.** Sarrera (2. or.).
- II.** Udalari buruzko datu orokorrak eta arauak (3. or.).
  - II.1. Udalari buruzko datu orokorrak (3. or.).
  - II.2. Araudia (5. or.).
- III.** Helburua (6. or.).
- IV.** Norainokoa eta mugak (6. or.).
- V.** Iritzia (6. or.).
  - V.1. Udalaren kontu orokorra (6. or.).
  - V.2. Legezketasuna (7. or.).
  - V.3. Egoera ekonomikoa (7. or.).
  - V.4. Aurreko ekitaldietako gomendioen betetzea (8. or.).
- VI.** Finantza-egoeren orriak (9. or.).
- VII.** Iruzkina, ondorioztapenak eta gomendioak (11. or.).
  - VII.1. Orokorra (11. or.).
  - VII.2. Barne-kontrola (11. or.).

VII.3. Langileria (11. or.).

VII.4. Inbertsioak (12. or.).

VII.5. Bestelako gastu eta inbertsioak (12. or.).

VII.6. Erakundeak eta enpresak (12. or.).

**VIII.** Beste alderdi batzuk (12. or.).

Eranskinak

Behin-behineko txostenari buruz Iruñeko Udaleko alkateak egindako iruzkinak (14. or.).

Iruñeko Udalaren urteko kontu bateratuen oroitidazkia, 2009ko abenduaren 31ri dagokiona.

(Oharra: Aipatutako oroitidazkia foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbidean: [www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos)).

#### **I. SARRERA**

Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraikiz, Comptos Ganberak erregularatasun-auditoria egin du Iruñeko Udalak 2009ko ekitaldian izandako jarduera finantzarioari buruz.

Lan hau sartu zen Comptos Ganberak 2010erako onetsi zuen fiskalizazio-programan, eta auditoriako bost teknikarik eta auditore batek osaturiko taldeak egin zuen, betiere Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administrati- boen laguntzarekin.

Fiskalizazio txostenari 2009ko ekitaldiko urteko kontu bateratuen oroitidazkia erantsi diogu, udalak eginikoa.

Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

## II. UDALARI BURUZKO DATU OROKORRAK ETA ARAUAK

### II.1. UDALARI BURUZKO DATU OROKORRAK

Iruñeko Udalak, 2009ko urtarrilaren 1ean, zuzenbideko 198.491 biztanle zituen, eta 23,55 km<sup>2</sup>ko azalera.

Udalaren antolamendua, besteak beste, beharrezkoak diren ondoko organoek osatuta dago: Osoko Bilkura, zeina ordezkari politiko gorenaren organoa baita, Tokiko Gobernu Batzarra eta alkatea.

Administrazio-antolamendua arautze aldera, udalak alkatetzako xedapen bat onetsi zuen 2007an, eta bertan ezarri zen, alkatearen zuzendaritzapean, honako udal-egitura:

- Alkatetzako Kabinetea.
- Gerentzia bat, udal alorren funtzionamendua zuzentzen eta koordinatzen duena.

- Hamahiru gobernu alor gehi Udaltzaingoa, zeina alortzat hartzen baita ondorio askotarako.

Alorrak zinegotzi baten ardurapean daude, eta zuzendari bat eta idazkari tekniko bat dauzkate, biak zuzenean izendatuak.

Udalak, zerbitzu publikoak kudeatzeko, ondoko enteak sortu ditu:

- Erakunde autonomoak:

Udalaren haur eskolak: aur eskolen zerbitzua-ren kudeaketa.

Hirigintzako Udal Gerentzia: Iruñeko udalerriko hirigintza kudeaketa.

- Merkataritza-sozietateak:

Udal enpresa publikoetan udalak duen partaidetza-gehiengoa eta enpresa horiek emandako zerbitzu publikoak ondoko taulan ageri dira:

Enpresa	Partaidetza (%)	Sozietatearen xedea
Comiruña, S.A.	100	Txikizkako merkatuak
Pamplona Centro Histórico S.A.	100	Hirigune historikoko hirigintza
.ANIMSA, S.A.	77,69	Udal informatika
Mercairuña, S.A.	51	Handizkako merkatuak
Asimec S.A.	100	Etxez etxeko laguntza


Udalak ehuneko 31,49ko partaidetza dauka Oficina de Congresos de Pamplona Convention Bureau, S.L. enpresan, zeinak kongresu-kudeaketa baitauka jarduera gisa.

- Fundazioak:

Gayarre Antzokiaren Fundazioa, Gayarre antzokia kudeatzeko eta administratzeko.

Erruki Etxearen Fundazioa, hirugarren adineko-entzako zerbitzua emateko.

Iruñeko Udalaren eta haren menpeko erakundeen osaera ondoko irudian ageri dena da.



Honakoak dira entitate horien guztien datu ekonomiko nagusiak 2009ko ekitaldiaren itxieran:

- Administrazio publikoaren arloa:

	euroak, milakotan		
	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko betebeharrak	Langileak, abenduaren 31n
Udala	294.350	252.411	1.282
Hirigintza Gerentzia	54.038	84.895	30
Haur eskolak	7.344	7.445	158

- Merkataritza-sozietateak:

	euroak, milakotan		
Enpresak	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak
Comiruña, S.A.	645	517	128
Mercairuña, S.A.	1.424	1.176	248
ANIMSA	7.451	7.336	114
Pamplona Centro Histórico S.A	1.140	1.516	-376
Asimec, S.A.	1.271	1.199	72

- Fundazioak:

	euroak, milakotan		
	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak
Gayarre Antzokia	2.274	2.352	-78
Erruki Etxea	18.081	15.570	2.511

Kanpoko auditoreek Iruñeko Udalaren erakunde autonomoen, enpresa publikoen eta fundazioen 2009ko ekitaldiko kontuen auditoria egin dute.

Udala sarturik dago Iruñerriko Mankomunitatean, eta haren bidez kudeatzen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak (ur hornidura eta behe presioko saneamendua), hiri hondakin solidoen tratamendukoak eta hiri garraiokoak.

## II.2. ARAUDIA

2009an zehar Iruñeko Udalak bete beharreko oinarritzko araudia nagusiki honako lege eta erregelamendu hauek osatzen dute:

- Toki esparruko araubide eta administrazioari eta ekonomiaren, aurrekontuen eta kontabilitatearen esparruko araubideei dagokienez, honakoak dira aplikatzekoak:

Toki Araubidearen Oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 Legea eta hura aldatzen duten legeak, bereziki Toki gobernua gaurkotzeko neurriei buruzko 57/2003 Legea.

Iruñeko Udalarari antolaketa arloan aplikatuko zaion araubidea izanen da Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko X. tituluan –populazio handiko udalen antolaketa

araubidea– ezarrita dagoena, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen ondoriozko berezitasunak erantsita.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta hura aldatzen duten foru legeak, bereziki Nafarroako Toki Araubidea gaurkotzeari buruzko 11/2004 Legea.

Iruñeko Udalaren 1998ko otsailaren 27ko Erregelamendu Organikoa.

Martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea, Nafarroako toki ogasunei buruzkoa, eta hori aldatzen duten foru legeak.

Abenduaren 2ko 16/1997 Foru Legea, Iruñeko Hiriburutza Agiria ezartzen duena.

270, 271 eta 272 foru dekretuak, 1998ko irailaren 21ekoak, aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta Nafarroako toki-administrazioarako kontabilitate-instrukzio orokorra onesteari buruzkoak, hurrenez hurren.

Kontabilitate publikoaren plan orokorra, toki-administrazioari egokitua, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak 1990eko uztailaren 17ko aginduz onetsitakoa.

2009ko aurrekontuaren betetze-oinarriak.

Udalak exijitutako tasa eta prezio publikoei buruzko ordenantzak eta erabakiak.

- Dirulaguntzen arloan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorra, hori garatzeko erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onetsia, dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorra eta udalak onetsiriko ordenantza bereziak.

- Administrazio-kontratazioaren esparruan, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legean ezarritako berezitasunekin.

- Langileen arloan, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena, bai eta hura garatzeko xedapenak ere.

- Hirigintzaren arloan, Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea.

### III. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, udalaren 2006ko ekitaldiaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren erregulartasun-fiskalizazioa egin dugu.

Lanaren xedea da gure iritzia ematea hurrengo gaiei buruz:

a) Ea udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza ematen duen ondarearen, egoera ekonomiko-finantzarioaren, aurrekontuaren likidazioaren eta 2009ko abenduaren 31ko emaitza ekonomikoaren gainean, aplikatzekoak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz.

b) Legeen betetzea udalak 2009ko ekitaldian garaturiko jarduera ekonomiko-finantzarioan.

c) Udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoen 2009ko abenduaren 31ko finantza-egoera bateratua.

d) Egin zuen azken fiskalizazio-txostenean, Comptos Ganbera honek eman zituen gomendioak bete diren.

### IV. NORAINOKOA ETA MUGAK

Comptos Ganberak, bere jarduketa programarekin bat, Iruñeko Udalaren finantzen egoera-orriren fiskalizazioa egin du; egoera-orri horietan sarturik daude 2009ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, aurrekontu-emaitza eta diruzaintza-gerakina, bai eta egoera-orri horien informazio osagarria eta azalpen oharrak ere. Informazio finantzario horretan sarturik daude udalaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontu-likidazio bateratua eta udalaren, erakunde autonomoen eta partaidetza, osotara, udalarena duten sozietateak (“Comiruña”, “Pamplona Centro Histórico” eta “Asistencia municipal en casa S.A.”).

Gainerako udal entitateei dagokienez, gure helburua da kanpo auditoretzako txostenak aztertzea, horietatik ondorioak eta gomendioak ateratzeko.

Eginiko lanaren aztergai nagusia diru-sarreraren eta gastuen kapitulu ekonomikoen eta ondare-masen berrikuspena izan da, eta antolaketa, kontabilitate eta barne kontrolari dagozkien puntuak aztertu ditugu.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organoko Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsiriko fiskalizazio-printzipio eta arauari jarraituz burutu dugu lana eta, halaber, egoeraren arabera beharrezkotzat jo ditugun frogak guztiak ere egin ditugu.

Txostenean daude udalaren eta haren erakunde-entzako antolamendua, barne-kontrola eta kudeaketa hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak.

### V. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Udalaren erantzukizuna da kontuaren presetaketa eta edukia. Haren erakunde autonomoei, enpresa eta fundazio publikoei buruzko auditoria-txostenak ere, aipaturiko ekitaldikoak direnak, aztertu ditugu.

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritzi honetara iritsi gara:

#### V.1. UDALAREN KONTU OROKORRA

Alde batera utzirik udal montepioari atxikitako funtzionarioen pentsio-eredu indardunen ondoriozko betebeharrak aktuarialak zenbatetsi ez izanaren salbuespena, udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza agertzen du, muntadunak diren alderdi guztietan, 2009ko abenduaren 31ko ondareari eta egoera finantzarioari, 2009ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioari eta egun horretako

emaitza ekonomiko eta ondarezkoari buruz, eta beharrezkoa eta nahikoa den informazioa biltzen du hori egokiro interpretatu eta ulertzeko, aplikatzekoak diren kontabilitate publikoko printzipio eta arauari jarraituz.

## V.2. LEGEZKOTASUNA

Oro har, 2009ko ekitaldian zehar, udalaren jardura ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz egin da.

## V.3. EGOERA EKONOMIKOA

Gastuen hasierako aurrekontuari –298 milioi euro– beste 68 gehitu behar zaizkio –hau da, ehuneko 23–, 366 milioiko kopurura iristeko. Gastuek 284 milioi euro egin dute; betetzea, beraz, ehuneko 78koa izan da.

Diru-sarrerek, hasierako aurrekontu berarekin, 94 milioi egin dute gora –hau da, ehuneko 31–, 392 milioira iristeraino. Aitorturiko eskubideek 295 milioi egin dute; haien betetze maila, beraz, ehuneko 75koa da.

Udalaren 2008ko abenduaren 31ko diruzaintzako gerakin negatiboa finantzatzeko erabilitako baliabide-soberakinari dagokio aldaketan zenbatekoan dagoen aldea.

Ekitaldiko aurrekontu-emaitza doitua 19,4 milioi eurokoa izan zen; hau da, aurreko ekitaldikoa baino 11,2 milioi euro gehiagokoa. Halere, nabarmendu beharra dago onetsi zela Udalaren transferentzia arrunt bati aplikatzea Hirigintzako Gerentziaren gerakineko 10 milioi euro, eta zenbateko hori diruzaintzako gerakinaren egoera-orrian doikuntza gisa islatu dela.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 7,4 milioikoa izan zen. Hona osaera:

Udala	3.109.885
Haur eskolak	4.172.283
Gerentzia	135.849
	7.418.017

Honakoak dira betetze bateratuari buruzko adierazle nagusiak:

	2005	2006	2007	2008	2009
Aitorturiko eskubideak, guztira	225.691.130	213.156.908	276.285.653	277.546.063	295.286.190
Aitorturiko betebeharrak, guztira	206.252.212	238.070.062	323.305.342	255.120.428	284.305.433
Zorpetze-maila	3,36 %	1,54 %	2,86 %	3,21 %	3,40 %
Zorpetze-muga	8,37 %	13,31 %	6,76 %	6,40 %	9,04 %
Zorpetze-ahalmena	5,01 %	11,78 %	3,90 %	3,18 %	5,64 %
Inbertsioaren indizea	30,79 %	35,12 %	50,01 %	32,68 %	38,09 %
Gastu arruntak biztanleko	708	772	803	845	859
Tributu bidezko dirusarrerak biztanle bakoitzeko	389	383	416	423	459
Zorra biztanleko	256	245	308	366	507

Datu bateratuetatik ondorioztatzen da adierazleek hobera egin dutela 2009an; izan ere, aurreko ekitaldiaren aldean, igo egin da zorpetze-ahalmena eta gehiago igo dira biztanleko tributu bidezko diru-sarrerek –ehuneko 8,5– biztanleko gastu arruntak baino –ehuneko 1,6–. Halatan, adierazgarria da aurreikusitakoaren ehuneko 145eko betetzea izan duela EIOZak, eta ehuneko 23 igo da aurreko ekitaldiko diru-bilketaren aldean. Ekital-

diaren emaitza 2008an 8,3 milioikoa izatetik 19,4koa izatera igaro da 2009an, eta diruzaintzako gerakina, aurrekoa baino txikiagoa izan arren, positiboa da hiru erakundeen kasuan. Biztanle bakoitzeko zorra ehuneko 38,5 igo da, 366 eurokoa izatetik 507 eurokoa izatera igaro baita, zorraren bolumenak 28 milioiko igoera garbia izan delako, guztira 100,6 milioikoa izateraino.

#### V.4. AURREKO EKITALDIETAKO GOMENDIO- EN BETETZEA

2008ko ekitaldiko txostenean adierazi genuen 2010etik aurrera izanen zutela eragina gomendioek, batez ere kontabilitateko aplikazio informatiko berriaren ezarpenarekin lotuta daudenek.

Horri dagokionez adierazi behar dugu 2010eko azken hiruhilekoan ezarri dela aplikazio informatikoa, eta, hortaz, ekitaldi honetatik aurrera egingen dugula ezartzeke dauden gomendioen azterketa zehatza.

Atal honetan, berriz, ondokoa nabarmendu nahi dugu:

- 2009aren amaiera aldean hasi zen Hirigintza-ko Gerentzian poligonoetako kontuak ixteko prozesua, jarraitu beharreko prozedura ezarri zuen irizpen juridikoa egin baitzen.

- Ikusten dugunez, legez ezarritakoak baino aparteko ordu gehiago egiten duten pertsonen kopurua handia da oraindik ere; zehaztu beharra dago, ordea, horietako asko Sanferminetako festen ondorioz eta udaltzaingoarekiko lan-akordioen aplikazioaren ondorioz egiten direla. 2009an 46.189 egin dira, eta horrek 787.486 euro ekarri die 1.625 hartzailerari.



**VI. FINANTZA-EGOEREN ORRIAK**

2009ko ekitaldiko aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orria

**Gastu-aurrekontuaren betetzea. Saikapen ekonomikoa**

Kontzeptua	Kap.	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak + gehik/murrizk.	Behin betiko aurreik.	Aitorturiko betebeharrak	Kitatutako ordainketak	Egiteko dauden ordainketak	Betetakoa (%)	Aitorturiko guztiaren gaineko %
Langile gastuak	1	86.353.500,00	-307.930,00	86.045.570,00	84.428.674,38	83.897.394,41	531.279,97	% 98,12	% 29,70
Zerbitzuak eta ondasun arruntak erostea	2	78.367.557,00	459.928,98	78.827.485,98	73.476.801,35	61.269.443,54	12.207.357,81	% 93,21	% 25,84
Gastu finantzarioak	3	5.736.500,00	51.000,00	5.787.500,00	2.671.636,19	2.623.822,05	47.814,14	% 46,16	% 0,94
Transferentzia arruntak	4	10.129.017,00	34.000,00	10.163.017,00	9.846.855,44	6.534.558,18	3.312.297,26	% 96,89	% 3,46
Inbertsio errealak	6	98.721.223,00	63.460.824,47	162.182.047,47	99.971.330,62	83.500.143,09	16.471.187,53	% 61,64	% 35,16
Kapital-transferentziak	7	13.172.100,00	4.144.962,37	17.317.062,37	8.314.000,95	6.550.864,23	1.763.136,72	% 48,01	% 2,92
Aktibo finantzarioak	8	2.257.200,00	0,00	2.257.200,00	2.000.035,68	1.997.035,68	3.000,00	% 88,61	% 0,70
Pasibo finantzarioak	9	3.596.500,00	0,00	3.596.500,00	3.596.098,42	3.596.098,42	0,00	% 99,99	% 1,26
Gastuak, guztira		298.333.597,00	67.842.785,82	366.176.382,82	284.305.433,04	249.969.359,60	34.336.073,44	% 77,64	% 100,00

**Dirusarrera-aurrekontuaren betetzea. Saikapen ekonomikoa**

Kontzeptua	Kap.	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak + gehik/murrizk.	Behin betiko aurreik.	Aitortutako eskubideak	Kitaturiko kobrantzak	Kobratzeko dagoena	Betetakoa (%)	Aitorturiko guztikoaren gaineko %
Zuzeneko zergak	1	49.636.900,00	0,00	49.636.900,00	50.333.316,28	47.072.900,97	3.260.415,31	% 101,40	% 17,05
Zeharkako zergak	2	6.000.000,00	0,00	6.000.000,00	8.750.879,28	8.024.755,49	726.123,79	% 145,85	% 2,96
Tasak eta beste diru-sarrerak batzuk	3	31.890.800,00	0,00	31.890.800,00	32.052.168,34	29.534.229,03	2.517.939,31	% 100,51	% 10,85
Transferentzia arruntak	4	91.977.952,00	60.998,98	92.038.950,98	90.853.656,61	88.217.223,12	2.636.433,49	% 98,71	% 30,77
Ondarearen diru-sarrerak	5	4.909.601,00	0,00	4.909.601,00	2.425.193,50	2.322.226,00	102.967,50	% 49,40	% 0,82
Inb. errealak bester.	6	4.828.600,00	49.756,63	4.878.356,63	13.091.020,05	12.994.946,70	96.073,35	% 268,35	% 4,43
Kapital-transferentziak	7	35.751.260,00	39.672.652,12	75.423.912,12	63.680.547,20	40.161.178,87	23.519.368,33	% 84,43	% 21,57
Aktibo finantzarioak	8	2.182.150,00	25.194.259,51	27.376.409,51	2.099.408,33	1.531.952,60	567.455,73	% 7,67	% 0,71
Pasibo finantzarioak	9	71.156.334,00	28.804.158,48	99.960.492,48	32.000.000,00	32.000.000,00	0,00	% 32,01	% 10,84
Diru-sarrerak, guztira		298.333.597,00	93.781.825,72	392.115.422,72	295.286.189,59	261.859.412,78	33.426.776,81	% 75,31	% 100,00

## 2009ko abenduaren 31ko egoeraren balantze bateratua. (272/1998 Foru Dekretuaren arabera)

Aktiboa		Pasiboa	
Deskribapena	2009ko itxierako zenbatekoa	Deskribapena	2009ko itxierako zenbatekoa
A Ibilgetua	1.070.142.719,05	A Funts berekiak	1.019.811.497,10
1 Ibilgetu materiala	469.846.294,57	1 Ondarea eta erreserbak	556.714.695,85
2 Ibilgetu ez-materiala	21.693.030,87	2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	73.003.801,20
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	569.852.601,34	3 Kapitaleko diru-laguntzak	390.093.000,05
4 Herri-ondasunak		B Arrisku eta gastuetarako hornidurak	0,00
5 Ibilgetu finantzarioa	8.750.792,27	4 Hornidurak	0,00
B Zenbait ekitalditan banatu beharreko gastuak	0,00	C Epe luzeko hartzekodunak	101.235.626,12
6 Kitatu beharreko gastuak	0,00	4 Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak	101.235.626,12
C Zirkulatuzailea	110.848.135,24	D Epe laburreko hartzekodunak	59.943.731,07
7 Izakinak	7.862.620,61	5 Ixkitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	59.821.738,00
8 Zordunak	57.574.552,61	6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	121.993,07
9 Kontu finantzarioak	45.394.157,31		
10 FINANTZA EGOERA IRAGANKORRAK, ALDIZKATZEAREN ONDORIOZKO DOITZEAK Finantzetaren egoera iragankorrek, aldizkatzeak eragindako doitzeak	16.804,71		
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	0,00		
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>1.180.990.854,29</b>	<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>1.180.990.854,29</b>

## 2009 ekitaldiko aurrekontu bateratuaren emaitza

Kontzeptua	Aurreko ekitaldia (2008)	Itxiera-ekitaldia (2009)
Aitortutako eskubide garbiak	277.546.063,67	295.286.189,59
Aitorturiko betebeharrak garbiak	-255.120.428,77	-284.305.433,04
<b>Aurrekontu-emaitza</b>	<b>22.425.634,90</b>	<b>10.980.756,55</b>
<b>Doikuntzak</b>		
Finantzetaren desbideraketa positiboak	-23.086.134,50	-27.074.194,92
Finantzetaren desbideraketa negatiboak	8.943.909,54	25.536.451,25
Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak	0,00	10.000.000,00
<b>Aurrekontu-emaitza doitua</b>	<b>8.283.409,94</b>	<b>19.443.012,88</b>

## Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria 2009ko abenduaren 31n

Kontzeptua	Itxiera-ekitaldia (2008)	Itxiera-ekitaldia (2009)	Aldea, %
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	41.041.439,79	50.263.144,70	% 22,47
(+) Aurrekontua. Diru-sarrerak: aurtengo ekitaldia	25.824.916,52	33.426.776,81	
(+) Aurrekontua. Diru-sarrerak: Itxkitako ekitaldiak	18.340.331,14	15.945.603,62	
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	2.508.788,19	6.760.120,07	
(-) Diru-bilketa zaileko eskubideak	-5.483.722,55	-5.747.198,28	
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-148.873,51	-122.157,52	
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	-89.195.334,80	-58.013.666,14	% -34,96
(+) Aurrekontua. Gastuena: aurtengo ekitaldia	-45.975.909,56	-34.336.073,44	
(+) Aurrekontua. Gastuak: Itxkitako ekitaldiak	-46.829.503,65	-14.538.468,04	
(-) Aurrekontuz kanpoko gastuak	3.918.493,54	-8.677.299,76	
(-) Egiteke dauden itzulketak. Ordainketa	-321.799,19	-468.663,88	
(+) Egiteke dauden ordainketak. Aplikazioa	13.384,06	6.838,98	
(+) Diruzaintzako funts likidoak	69.483.493,22	41.202.061,59	% -40,70
(+) Finantziazio-desbideraketa metatu negatiboak	7.425.446,49	25.218.056,35	% 239,62
<b>= Diruzaintzako gerakina, orotara</b>	<b>28.755.044,70</b>	<b>58.669.596,50</b>	<b>% 104,03</b>
Finantzetara atxikia duten gastuen diruzaintza-gerakina	39.493.084,18	39.869.870,02	% 0,95
Diruzaintza-gerakina, baliabide atxikiak direla-eta	1.383.757,51	11.381.709,28	% 722,52
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-12.121.796,99	7.418.017,20	% -161,20

## VII. IRUZKINAK, ONDORIOZTAPENAK ETA GOMENDIOAK

Kontuan hartuta txosten honetan adierazitako iritzia nahiz 2010eko azken hiruhilekoan aplikazio informatiko berria ezartzeari buruz adierazitakoa, atal honetan soilik nabarmendu nahi ditugu aplikazio horrekin batera ezarri nahi ziren gomendioetan sartzen ez diren auziak; beste horiek, honen aurreko txostenean adierazitakoak, heldu den ekitaldiari buruzko txostenean aztertuko baititugu.

Oroitidazkiak –Udalak taxutu du eta txosten honen eranskin gisa ageri da– kontabilitate hutseko informazioa osatu eta zabaltzen duen informazioa jasotzen du.

### VII.1. OROKORRA

Hauexek gomendatzen ditugu, egindako lanaren ondorioz:

- *Kontu orokorra lege ezarritako epeetan egitea eta onestea. 2009. urteari buruzkoa 2010eko azaroaren 19ko Osoko Bilkuran onetsi zen.*

- *1998ko erregelamendu organikoa udal egituraren arabera egokitzea.*

- *Informazio ekonomiko-finantzarioa zabaldu eta udalaren Interneteko webgunean sartzea ez soilik udal aurrekontua, baizik eta haien betetzea eta menpeko organismoen auditoretzak.*

- *Aztertzea ea komeni den Mankomunitateak udal-lagapen bidez Iruñean egiten duen jarduerari buruzko datuekin osatzea aurrekontu-informazioa. Izan ere, jarduera hori 40 milioi ingurukoa izan liteke, udal teknikariek eta Mankomunitateak egindako lehen hurbilketa baten arabera.*

### VII.2. BARNE-KONTROLA

Ekitaldian udal kontu-hartzaitzak eginiko barne-kontrolak jomuga izan du gastuen aurretzako fiskalizazio mugatua, ordainketa-aginduaren kontu-hartzea eta udaleko erakunde autonomo eta enpresa publikoen kontrol finantzarioa, kanpo-auditoreek eginiko auditorien bitartez eginikoa.

*Hona gure gomendioak:*

- *Aztertzea barne kontrola gauzatzen deneko alderdi bakoitzari eman beharreko edukia eta norainokoa, halako moduan non urtean zehar definitzen diren arlo edo proiektuetako aurretzako kontu-hartzaitza eta fiskalizazio lanak egin ahal izanzen baitira.*

### VII.3. LANGILERIA

2009ko abenduaren 31n 1.424 ziren Udaleko lanpostuak; horietatik 856, langile finkoek betetzen zituzten, 152 gorderik zeuden zerbitzu berezietan zeuden funtzionarioentzat, 40 izendapen askekoak ziren eta 376 hutsik zeuden.

Langile horiei gehitu beharko litzaizkieke Hirigintzako Gerentziako 30ak eta Haur Eskoletako 131k.

Oroitidazkian adierazten denez, Pasiboei buruzko Legeak eragina izan du lanpostu hutsetan, erretiroa hartzearen ondorioetarako Gizarte Segurantzari kotizatutako urteak onartu baititu, eta horrek ekarri du erretiro kopurua igotzea.

2009an aldi baterako 1.014 kontratu egin ziren, 774 pertsonari dagozkienak, 105 eguneko batez besteko iraupenarekin.

Administrarien oposizioa geldiarazteak kalte-ordaina ordaindu beharra ekarri du, zeina 2009an ordaindu baitzen (381.000 euro, gehi 44.160, interresetan).

46.189 izan ziren 2009an dirutan konpentsatutako aparteko orduak; 1.625 pertsonak egin zituzten aparteko ordu horiek, eta 787.486 eurokoa izan zen kostua. 249 langile daude, asteko 50 ordu baino gehiago egiten dituztenak.

Ordaindutako orduen zenbateko osoaren ehuneko 41 Sanferminetako festetako orduei dagokie. Arloka, ehuneko handiena Udaltzaingoari dagokio.

Honakoa ikusten da:

- *Zenbait kasutan badira arduradunak bere buruari orduak baimentzen dizkietenak, goiko inoren oniritzirik gabe.*

- *Ez da beti jasota geratzen aparteko orduak egiteko arrazoia, eta, batzuetan, arrazoia orokorra da.*

*Hona gure gomendioak:*

- *Plantillan eta lan eskaintza publikoan erabilitako lanpostuen izenak homogeneousatzea.*

- *Aparteko orduak egitearen beharra aztertzea eta egon litezkeen aukerak aztertzea. Kasua bada, orduen justifikazioa hobetzea, bereziki Udaltzaingoaren alorrean, eta alde aurreko baimenak exijitzea.*

- *“Ogasun Publikoa hartzekodun” (140.977 euro) eta “Funtzionarioen osasun laguntza” (56.529 euro) kontuetan aurreko ekitaldietatik datozen saldoak aztertu eta, kasua bada, erregulartzatzea.*

#### VII.4. INBERTSIOAK

Kapitulu honetako zenbateko bateratua 99,9 milioioa izan da, aurreko ekitaldian baino 28 milioi gehiago hain zuzen ere; alegia, ehuneko 39.

Ekitaldi honetan berritasunik handiena heldu da 9/2008 Errege Lege Dekretuaren bidez ("E Plana" izeneko) sortutako toki inbertsioetarako Estatuko Funtseko inbertsio proiektuetatik.

Planaren oinarritzko helburua zen enplegua sustatzea toki entitateek obrak eginez; obrak urtebetean egin behar ziren eta osorik finantzatzen zituen Estatuko funtsak. Udal bakoitzari esleitzen zaion gehieneko zenbatekoa biztanle kopuruaren arabera da. Kontabilitatearen ikuspegitik aurrekontu-aldaketa bat gertatu da, gastuak nahiz diru-sarrerak igotzea ekarri duena.

Errege dekretuko baldintzei jarraikiz, Udal Gerentziak "zerbitzu-agindu" bat eman zuen, administrazio-izapideak sinplifikatzen zituena, plan horretan sartutako obrak urtea amaitu orduko bukatu behar zirelako.

Iruñari esleitutako gehieneko finantzaketa 34,5 milioi eurokoa zen.

30 proiektu onetsi ziren, guztira 34,5 milioi egi-ten zutenak. Azkenean 28,1 milioi euro jaso ziren; alegia, betetakoaren ehuneko ehun. Aldea gertatu zen batik bat esleipenetako bajengatik.

Uste dugu ondokoa azpimarratu behar dela:

- Inbertsio-bolumen handi bat epeak betez kudeatzerakoan udalak izan duen zalutasuna, sinplifikazioa lagun, araudia aplikatzean. Komeniko litzateke aztertzea malgutasunak –dela orokorrak dela kasu jakin batzuetakoak– kudeaketa hobetzen lagunduko lukeen, kontratazio publikoan gorde beharreko bermeak murriztu gabe.

- Iruñari zenbateko bat emanda, hasiera batean aurreikusitako aurrekontuaren gaineko aurrezkiak –esleipenetan lortutako bajen ondorioz– ez dio udal aurrekontuari eragiten, E Planari dedikatutako Estatuko funtsetarako aurrezkian ez bada.

#### VII.5. BESTELAKO GASTU ETA INBERTSIOAK

Gastuen eta diru-sarreraren beste kapitulu batzuei buruz egindako lanetik ondoko gomendioak heldu dira:

- *Irizpide homogeneo eta nahikoak aplikatzea diru-laguntzak eta transferentziak justifikatzeko, eta baldintza egiaztagarriak sartzea hitzarmen-tan edo baldintza-orrietan. Diru-sarrerei dagokienez, berriz, eskaera egiten duen entitatearen alde-*

*ko beste diru-laguntzaren bat ote dagoen egiaztatu behar da.*

- *Udalak gehiago kontrolatzea "Pamplona Centro Histórico" sozietatearen jarduera; izan ere, ikusten da enpresari eginiko ekarpenak urtez urte justifikatzen dituenak baino handiagoak direla. Halatan, adibidez, azken lau urteotan 3,2 milioi euroko soberakina gertatu da, ekarpenaren eta justifikatutako gastuen artean. Alde hori gertatzen da gastuen erritmoa aurreikusitakoa baino motelagoa delako. Adierazi digutenez, 2010ean ez da ekarpenik eskatu.*

- *Iruñerriko Mankomunitateari hark egin beharreko kobrantza azkartzea, Udalak bi entitateen obrak kudeatzen dituenen.*

- *Egin gabeko diru-sarrerei buruzko txosteneko saldoen eta agentzia betearazlearen saldoen artean gertatzen diren aldeak erkatzea.*

#### VII.6. ERAKUNDEAK ETA ENPRESAK

Erakunde autonomoen, haur eskolen eta Hiri-gintzako Udal Gerentziaren kontuak; fundazioen, Gayarre Antzokiaren eta Erruki Etxearen kontuak, eta udalak partaidetzaren gehiengo duen enpresen kontuak –ANIMSA, Asimec, Mercairuña, Comiruña eta P.C.H.– profesional independenteek ikuskatu dituzte. Kasu guztietan, aldeko iritzia agertu dute; ziurgabetasuna agertu dute, berriz, Erruki Etxearen kasuan, sozietateen gaineko zergaren aitortpena aurkezteari dagokionez.

Gayarre Antzokia Fundazioaren kasuan eta ANIMSA eta Mercairuña enpresen kasuan, auditoriak eginiko berariazko lan bat ere ageri da, entitate horiek legezketasuna betetzeari buruzkoa (Hirigintzako Gerentziaren kasuan, Haur Eskolen kasuan, PCHren kasuan eta Asimecen kasuan paragrafo bat gehituta). Kasu guztietan, aldekoa da emaitza.

Entitate horiei buruz nabarmendu nahi dugu Hirigintzako Gerentziaren gerakineko 10 milioi aplikatu zaizkiola Udalari, Gayarre Antzokia Fundazioak 77.588 euroko galerak izan dituela eta, enpresen artean, PCHk 376.472 euro galdu dituela.

#### VIII. BESTE ALDERDI BATZUK

Aurrekontu-betetzeari buruzko datuetatik ondorioztatzen da egungo krisi orokorrak ez duela udala bereziki kaltetu, baina argi dago krisiak erakunde guztiei eragiten diela eta krisiaren eraginez saiatu beharra dagoela baliabide publikoak eragin-kortasun eta efizientzia handiagorekin erabiltzen.

Halatan, egindako lanetik ondorioztatzen diren hiru alderditan jarri nahi dugu azpimarra:

a) Zenbait administrazioen artean partekatutako eskumenak egotea. Badira partekatuak diren zenbait zerbitzu, eta horien eskumen-banaketa oso asimetrikoa da edo administrazioen artean

irizpide ezberdinak egon daitezke horiei dagokionez (kultura, segurtasuna, turismoa, eta abar).

b) Udal-antolamenduan hamalau alor ageri dira, Alkatetzako Kabinetea eta Udal Gerentziaz gain. Ondoko taulan ageri da plantilla nola banatzen den alorrez alor (handitik txikira ordenatuta):

Plantilla organikoa

Alorra:	Lanpostu kop.	%
Udaltzaingoa *	493	34,62
Gizarte Ongizatea eta Kirola	177	12,43
Hiri-kontserbazioa	148	10,39
Hezkuntza eta Gazteria	146	10,25
Garapen iraunkorra	84	5,90
Toki ogasuna	80	5,62
Lehendakaritza	76	5,34
Hirigintza eta etxebizitza:	57	4,00
Kultura	35	2,46
Herritarren segurtasuna	35	2,46
Herritarren partaidetza eta teknologia berriak	32	2,25
Proiektu estrategikoak	28	1,97
Udal gerentzia	14	0,98
Mugikortasuna	7	0,49
Merkataritza eta Turismoa	7	0,49
Alkatetzako Kabinetea	5	0,35
	1.424	100,00

\* Plantillaren ondorioetarako, Udaltzaingoa alor bat balitz bezala ageri da.

Bestelako hausnarketak egiten hasi gabe, ematen du logikoa dela galdetzea ea horiek guztiek behar adinako jarduera-bolumena duten, alor bat osatzeko, alorrek beharrezkoa duten egitura guztiarekin.

Planteatutako bi auziak aintzat hartuz gero ikus dezakegu Udaltzaingoak hiru udal-langiletik bat hartzen duela (493 langile plantillan), eta partekatutako eskumenetako bat dela, ez soilik foru administrazioarekin, ezpada estatukoarekin ere.

c) Udalari diru-laguntzak eman zaizkio inbertsioetarako, finantza-beharrizanen ehuneko ehunera iristen ez direnak.

Ez dago udal-ekimenaren mende, baina, egungo egoeran batez ere, komeni da aztertzea zer ondorio izan dezakeen gisa horretako diru-laguntzak emateak, ahalegin ekonomiko bat egitea eskatzen baitzaie toki entitateei xede zehatz baterako finantzaketa lortze aldera, bestela diru-lagun-

tza horiek galduko dituztelako. Sistema horrek, zeina ekonomia-oparaldietan komenigarria izan daitekeen, toki entitateak behartzen dituelako helburu bat lortzeko ahalegin bat egitera, zorpetze handiagoa ekar dezake, edo krisiaren aitzakian zenbait jarduketa baztertzea, herritarrarentzako zerbitzuetan horrek dakartzan ondorioekin. Horri dagokionez, VI.4. atalean E Planaren emaitzei buruz adierazitakoa ekarri behar dugu gogora.

*Hona gure gomendioak:*

- *Administrazio batek baino gehiagok esku hartzen duten eskumenak aztertzea, eta zehaztea, horietako bakoitzari dagokionez, zein izan daitekeen herritarrari zerbitzu hori emateko modurik eraginkorrena eta ekonomikoena.*

- *Alor bat ezartzeko beharrezkoak diren gutxieneko lan-edukiak, baliabide materialak eta giza baliabideak ezartzea, eta gaur egunekoek gutxieneko horiek betetzen ote dituzten aztertzea.*

• *Udalaren jarduketa berriei buruzko lehentasunak zehaztea eta, diru-laguntzak jasotzeko modukoak baldin badira, jarduketa horiek eragiten dituzten kostuak aztertzea eta kostu horiek bere gain hartzeko aukera aztertzea. Kasua bada, toki entitateei laguntzak emateko moduaren aldaketa sustatzea, halako moduan non zerbitzu bat osorik finantzatzen ahalko baita, nahiz eta horrela zerbitzu gutxiago eman.*

Txosten hau auditore Jesús Muruzabal Lerga jaunak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2011ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

### **BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI BURUZ IRUÑEKO UDALEKO ALKATEAK EGINDAKO IRUZKINAK**

Lehendakari agurgarri hori:

Joan den urtarrilaren 3an Iruñeko Udalaren 2009. ekitaldiari buruzko behin-behineko fiskalizazio txostenaren onespena jakinarazi zeniguten. Hura aztertu ondoren, eskerrak eman nahi dizkizugu urtetik urtera egiten dituzuen ekarpenengatik, oso balio handikoak baitira gure udalaren kudeaketa hobetzeko.

Azkenik, adierazi nahi dizut ez dugula alegaziorik eginen aurkeztutako txostena dela eta, eta ahalegintzen jarraituko dugula zure erakundeak egiten dizkigun gomendioak praktikan jartzen.

Agur t'erdi,

Alkatea: Yolanda Barcina Angulo

## **Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 7an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Burlatako Udalari buruz egingako fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2011ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (15. or.).
- II. Helburua (17. or.).
- III. Norainokoa (17. or.).
- IV. Iritzia (17. or.).
  - IV.1. Udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorra (17. or.).
  - IV.2. Legezketasuna (18. or.).
  - IV.3. 2009ko abenduaren 31ko finantza-egoera (18. or.).
  - IV.4. Aurreko txostenetan Comptos Ganberak emandako gomendioen betetze-maila. (18. or.).
- V. 2009ko kontu orokor bateratuaren laburpena (20. or.).
  - V.1. 2009ko ekitaldiko aurrekontu bateratuaren betetzearen egoera-orria (20. or.).
  - V.2. Aurrekontu-emaizta bateratua (21. or.).
  - V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orri bateratua (21. or.).
  - V.4. Egoera-balantze bateratua (22. or.).
  - V.5. Galera eta irabazien kontua (23. or.).
- VI. Iruzkinek, ondorioztapenak eta gomendioak (24. or.).
  - VI.1. Alderdi orokorrak (24. or.).
  - VI.2. Langileak (26. or.).
  - VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (26. or.).
  - VI.4. Inbertsioak (27. or.).
  - VI.5. Diru-sarrerak (28. or.).
  - VI.6. Inbentarioa-lbilgetua (29. or.).
  - VI.7. Hirigintza (29. or.).
  - VI.8. Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatea, SL (29. or.).
  - VI.9. Ripaberri Desarrollo Urbano, SL (31. or.).

1. eranskina Burlatako Udalaren organigrama (32. or.).

2. eranskina 2009ko ekitaldiko kontuen oroitidazkia

(Oharra: Aipatutako eranskinak foru parlamentarien esku daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbidean: [www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos)).

#### **I. SARRERA**

2010eko jarduera-programari jarraituz, Comptos Ganberak Burlatako Udalaren eta haren erakunde autonomoen (Kirol Patronatua eta Kultura Patronatua) 2009ko ekitaldiari buruzko fiskalizazioa egin du.

Burlatak 18.595 biztanle ditu 2009ko urtarrilaren 1ean.

Burlatako Udalak, bere erakunde autonomoen batera, hauexek ditu zifra adierazgarrienak 2009ko abenduaren 31n:

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak 2009-12-31n
Udala	17.949.835	16.231.260	149
Kirol Patronatua	2.086.330	2.187.921	21
Kultura Patronatua	808.886	867.556	5
Bateratzearen doitzeak	-1.319.268	-1.319.268	
Guztira	19.525.783	17.967.469	175

Oharra: Plantilla organikoan 2009ko abenduaren 31n ageri diren 175 lanpostuez gainera, aldi baterako 90 langile daude lantegi-eskolan, gizarte enpleguan eta udalaren enplegu-sustapenaren arloan.

Hilarión Eslava Musika Eskolaren kontuak ez dira sartu 2009ko ekitaldiari buruzko kontu orokorrean, 2007an eta 2008an bezala, zeren eta Nafarroako Auzitegi Nagusiaren 2008ko urtarrilaren 16ko 24/2008 epaitik ondorioztatzen baita ente horrek ez duela bere izaera juridikoa definiturik eta, gaur egun, ezin dela tokiko erakunde autonomotzat hartu.

2005ean, udalak Burlatako Udal Hirigintza Sozietatea ("Sociedad Urbanística Municipal de Burlada SL") eratu zuen. Sozietate horrek ehuneko 51ko parte-hartzea du Ripaberi Desarrollo Urbano SL sozietatean (2008an eraturia) eta Erripagaina Desarrollo Urbano SL sozietatean (2010ean eraturia).

Udala sarturik dago Iruñerriko Mankomunitatean, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak, eskualdeko hiri-garraioak eta ibai-parkearen kudeaketak.

Horrez gain, honakoetan hartzen du parte: Hilarión Eslava musika-eskolan, Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Eskualdeko Bulegoan eta Nafarroako Udal Informatikaren Elkartearen.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Toki Araubidearen oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena.
- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, 1/2007 Foru Legeak ezarritako berezitasunekin.

- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.

- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.

- 9/2008 Errege Lege Dekretua, Toki-inbertsio-ko estatu-funts bat eta ekonomia nahiz enplegua dinamizatzeko estatu-funts berezi bat eratzen dituen eta haren finantziarioari aurre egiteko kreditu bereziak onesten dituen.

- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako Toki Administrazioari aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

- Udalaren 2009ko aurrekontuaren exekuzio oinarriak eta gainerako barne araudia.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, egindako lanaren norainokoa azaltzen da. Laugarrenean, kontu orokorrari, legezkotasunari, finantza egoerari eta aurreko gomendioen jarraipenari buruz dugun iritzia agertzen dugu. Bosgarrenean, Burlatako Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantzen egoera-orri nagusiak azaltzen dira. Seigarren eta azkenekoan, berriz, erakundearen barne-antolaketa eta -kontrola hobetzeko egokitzen jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak biltzen dira, arloan arabera, bai eta Burlada SL udalaren hirigintza sozietatearen eta haren partaidetza duen sozietatearen azterketa bat ere.

Halaber, bi eranskin jaso dira: bata entitatearen organigramarekin, eta bestea udalak 2009ko ekitaldiko kontuei buruz eginiko oroitidazkiarekin.

Azterketa lana 2010eko ekainean eta uztailean egin dugu, batez ere.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak eman nahi dizkiegu udaleko eta haren



erakunde autonomoetako langileei, bai eta Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateko langileei ere.

## II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Burlatako Udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Fiskalizatutako entitatearen 2009ko kontu orokorrak fidelki islatzen ote duen, alderdi esanguratsu guztietan, entitatearen egoera ekonomiko eta finantzarioa, bai eta aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak; halaber, orokorki onartuak diren kontabilitate printzipio eta araei jarraituz prestatu ote den, eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Entitateak 2009an izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legediaren betetze-maila.

c) Erakundearen egoera finantzarioa 2009ko abenduaren 31n.

d) Azken fiskalizazio-txostenetan emandako gomendioak noraino bete diren.

Txostenarekin batera, beharrezkoak diren gomendioak eman ditugu, entitatearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetze aldera.

## III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Burlatako Udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du. Honako osagaiak dauzka:

- Toki-entitatearen kontua eta haren erakunde autonomoena: Kirol Patronatua eta Kultur Patronatua.
- Guztiz Burlatako Udalarena den Burlatako Udal Hirigintza Sozietatearen urteko kontuak.
- Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, kontu bateratua, zorraren egoera-orria eta kontu-hartzailetzaren txostena.

Udalak ez ditu kontu orokorraren eranskin gisa jarri, 272/1998 Foru Dekretuko 392 d) arauan ezarritakoaz kontra, Ripaberri Desarrollo Urbano SL sozietatearen kontabilitatearen egoera-orriak; izan ere, haren partaidetzaren ehuneko 51 Burlatako Udal Hirigintza Sozietatearena da.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko

Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta ingurubarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Zehazki, udalari eta bere erakunde autonomoei dagokienez, berrikusi dira bai beren aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia, bai aplikaturiko oinarritzko prozedurak; eta ebaluatu dira antolaketa, kontabilitateko eta barne kontroleko oinarritzko alderdiak.

Udalak partaidetza guztia duen sozietate publikoari dagokionez, berrikusi da bere jarduerako eragiketa nagusiak sektore publikoko entitatea izateagatik aplikatzekoak zaizkion legezko printzipioen arabera burutu dituen, bereziki kontratazio administratiboari eta udalak haren gain aplikatutako kontroleko tresnei dagokienez.

Ripaberri Desarrollo Urbano SL sozietatea dela-eta auditoria finantzarioko txosten bat bada-go, kanpoko auditoreek eginga.

## IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Burlatako Udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, bai eta haren edukia ere, udalaren ardura da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

Gure azterketan oinarriturik, honako iritzia honetara iritsi gara:

### IV.1. UDALAREN 2009ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta haren eguneratzea oraindik ere osatu gabe dago; horregatik, ezinezkoa izan da ibilgetu bateratuaren kontabilitate-saldoa arazoizkoa den egiaztatzea; saldo hori, 2009ko abenduaren 31n, 91.806.327 eurokoa zen.

Gutxienez ere epe motzean gastu orokorretarako baliabideak sortzeko gaitasunari buruz atzemandako zalantza garrantzitsua eta likidezia arazoak.

Arestian aipaturiko salbuespenaren ondorioak eta aipaturiko zalantzaren eraginak alde batera utzita, udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen ditu, alderdirik behinenetan, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa,

2009ko abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate publikoko printzipio eta arauei jarraituz.

#### IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren arabera, entitatearen jardura ekonomiko finantzarioa, oro har, legezketasun printzipioari jarraituz egin da, Toki Ogasunei buruzko Foru Legean diruzaintzako gerakin negatiboa dagoen kasuetarako ezarritako neurriak ez hartzeari dagokiona alde batera utzita, eta Udalak Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatearen eginiko enkarguen kudeaketa eta izapidez alde batera utzita.

#### IV.3. 2009ko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA

Hasierako aurrekontu bateratua 17,4 milioi eurokoa da, eta behin betikoa, 23,4 milioi eurokoa. Gastuen betetze-maila % 84,59koa da, eta diru-sarrerena, % 77,26koa.

Aitorturiko betebeharrak bateratuek, 2009an, 19,5 milioi euro egin dute eta aitorturiko eskubide bateratuek, berriz, 17,9 milioi euro. 2008rekin alderatuta, gastuek ehuneko 18 egin dute gora eta diru-sarrerak, berriz, ehuneko 5.

Ekitaldiko aurrekontuaren emaitza bateratuan, 841.458 euroko defizita dago.

Aurrezki garbia negatiboa da, 2009an bezalaxe; izan ere, diru-sarrera arruntak funtzionamendu gastuak eta finantza-zama baino txikiagoak izan dira (335.307 euro txikiagoak, guztira).

Diru-sarrera arruntan gaineko zorpetze-maila ehuneko 7,07koa da, eta zabal gaintzen du zorpetze-maila, zeina ehuneko 4,75 baita.

Epe luzeko zorra 3,6 milioi eurokoa zen 2009ko abenduaren 31n. Gainera, data horretan, udalak, diruzaintzan dirurik ez zuenez, 2009ko otsailean urtebeterako berritutako kreditu-polizako 2 milioi euro erabiliak zituen.

Diruzaintzako guztizko gerakina eta gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina negatiboak dira, 1,9 milioi euro eta 4,9 milioi euro, hurrenez hurren. Azken hori negatiboa izan da 2003tik, eta ehuneko 23 egin du gora 2008koaren aldean.

Ikuspuntu finantzarioratik, Burlatako Udalak, 2009an, oraindik ere zorpetze handia dauka eta aurrezki garbi negatiboa, nahiz eta hirigintza jarduerak sorturiko diru-sarrerak gora egin duten; gastu

orokorretarako diruzaintzako gerakinari dagokionez, 2003tik negatiboa izaten jarraitzeaz gainera, gora ere egin du, 2009ko abenduaren 31n 4,9 milioi euroko kopurura iristeraino. Gastu orokorretarako baliabideak sortzeko ezintasuna (gutxienez ere, epe motzean) eta likidez arazoak direla eta, Comptos Ganberak behin eta berriz gomendatu izan du bere txostenetan presaz bideragarritasun bat egin dadila.

#### IV.4. AURREKO TXOSTENETAN COMPTOS GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZE-MAILA.

Ganbera honen aurreko txostenari dagokionez, zeina 2008ko ekitaldiari buruzkoa baita eta 2010eko urtarrilean argitaratu baitzen, honako gomendio hauek bete dira edo ezartzeko bidean daude:

- *Plantilla organikoa langileriaren arloko egiazko beharretara egokitzen den analizatu behar da.*

- *Udal ondasunak (jabari publikoak, ondasunak eta herri ondasunak) erregistratzeko prozesua osatzea.*

- *Burlata eta Atarrabiako "Hilarión Eslava" Udalen Musika Eskolaren izaera juridikoa zehaztu behar da.*

- *Udalarentzako diru-sarrerak ekar ditzaketen jardueren (lizentziak, tasak...) gaineko kontrol- eta ikuskatze-prozedurak ezartzea.*

*Oraindik betetzeke daude, txosten honen VI. atalean esaten den moduan, gomendio garrantzitsu hauek, besteak beste:*

- *Aurrekontua indarreko legeetan ezarritako epeetan onetsi behar da, udalaren kudeaketa ekonomiko eta finantzariorako tresna gisa erabili ahal izateko.*

- *Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 230. artikulua ezartzen dituen neurriak aplikatzea, diruzaintzako gerakin negatiboko aurrekontua kitatzeko.*

- *Finantza-bideragarritasuneko plan bat egitea datozen ekitaldietarako, honakoak kontuan izanik: Erripagainako unitatearen hirigintza-garapenaren ondorioz aurreikustekoak diren diru-sarreraren lortzea, gastu arruntaren kontrola, udalean aplikatzea den presio fiskala, eman beharreko zerbitzuak, -gaur egungoak zein berriak- haien kostua eta herritarrengan izanzen duten eragina, bai eta zorpetzearen muga ere.*

- *Kontu Orokorra osatzea, eta eranskin gisa sartzeko Ripaberri Desarrollo Urbano SL sozietateari buruzko datuak.*

- *Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateari eginiko enkarguak behar bezala justifikatzea.*
- *Azkenik, berretsi nahi dugu zeinen garrantzitsua den udal hirigintzako eredu bat definitzea eta haren buruan gardentasun handienaren eta jarduketa guztien gaineko kontrolaren printzipioak ezartzea.*

**V. 2009ko KONTU OROKOR BATERATUAREN LABURPENA****V.1. 2009ko EKITALDIKO AURREKONTU BATERATUAREN BETETZEAREN EGOERA-ORRIA**

Gastuen kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako betebeharrak	Betetzearen %	Ordainketak	Ordainketak (%)	Ordaintzeke dagoena	% /aitorturiko guztia
1 Langile-gastuak	8.757.289	9.711.320	9.006.666	93	8.853.043	98	153.623	46
2 Ondasun arruntak eta zerbitzuak	4.047.984	4.144.589	3.612.309	87	2.988.305	83	624.004	19
3 Finantza-gastuak	295.131	232.996	207.801	89	207.801	100	0	1
4 Transferentziak	1.098.434	1.473.317	1.408.323	96	806.614	57	601.709	7
6 Inbertsio errealak	2.275.929	6.908.901	4.416.599	64	3.762.264	85	654.335	23
7 Kapital transferentziak	21.000	21.000	12.658	60	12.658	100	0	0
8 Finantza-aktiboak	35.000	37.700	27.700	73	27.700	100	0	0
9 Finantza-pasiboak	830.337	833.337	833.727	100	832.051	100	1.676	4
Gastuak, guztira	17.361.104	23.363.160	19.525.783	84	17.490.436	90	2.035.347	100

**Diru-sarrerak kapitulua ekonomikoen arabera**

Diru-sarreraren kapitulua	Behin betiko aurreikuspena aurrekontua	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko eskubideak	Betetzearen %	Kobrantzak	Kobrantzak	Kobranteke dagoena	% /aitorturiko guztia
1 Zerga zuzenak	3.467.400	3.467.400	3.674.536	106	3.230.756	88	443.780	20
2 Zeharkako zergak	1.200.000	1.200.000	1.286.015	107	1.277.276	99	8.739	7
3 Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.631.908	2.631.908	2.586.037	98	2.415.229	93	170.808	14
4 Transferentzia arruntak	6.617.543	7.623.229	6.897.153	90	6.648.810	96	248.343	38
5 Ondare diru-sarrerak	281.987	281.987	289.778	103	225.745	78	64.033	2
6 Inbertsioen besterentzea	2.688.613	2.688.613	757.950	28	757.950	100	0	4
7 Kapital transferentziak	438.653	4.907.491	2.460.306	50	2.331.167	95	129.139	14
8 Finantza-aktiboak	35.000	562.532	15.694	3	15.694	100	0	0
9 Finantza-pasiboak	0	0	0		0		0	0
Diru-sarrerak, guztira	17.361.104	23.363.160	17.967.469	77	16.902.627	94	1.064.842	100

## V.2. AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2009ko ekitaldia	2008ko ekitaldia
+ Aitorturiko eskubide garbiak	17.967.469	17.153.364
- Aitorturiko betebeharrak garbiak	19.525.783	-16.482.371
<b>= AURREKONTU EMAITZA</b>	<b>-1.558.314</b>	<b>670.993</b>
<b>DOITZEAK</b>		
<b>Finantzaketaren desbideratze positiboa G.F.A.</b>	<b>-193.316</b>	<b>-356.699</b>
+ Finantzaketaren desbideraketa negatiboa G.F.A.	802.033	0
- Finantzaketaren desbideraketa positiboa R.A.	0	-2.443.916
+ Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak	108.139	479.140
<b>= AURREKONTU EMAITZA DOITUA</b>	<b>-841.458</b>	<b>-1.650.482</b>

## V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRI BATERATUA

Kontzeptua	2009ko ekitaldia	2008ko ekitaldia
<b>+ KOBRATZEKO DAUDEN ESKUBIDEAK</b>	<b>1.224.464</b>	<b>1.579.879</b>
+ Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	1.064.842	1.347.017
+ Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	721.363	738.870
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	85.468	139.631
- Bilketa zaileko eskubideak	-647.209	-645.639
<b>- ORDAINTZEKE DAUDEN BETEBEHARRAK</b>	<b>4.692.030</b>	<b>4.842.723</b>
+ Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	2.035.347	2.353.884
+ Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	72.994	88.812
- Aplikatzeko dauden gastuak	-19.170	-18.265
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	2.602.859	2.418.292
<b>+ DIRUZAINZAKO FUNTS LIKIDOAK</b>	<b>1.137.437</b>	<b>2.578.566</b>
<b>+ FINANTZIAZIOKO DESBIDERATZE METATU NEGATIBOAK</b>	<b>445.334</b>	<b>0</b>
<b>= DIRUZAINZAKO GERAKINA, GUZTIRA</b>	<b>-1.884.795</b>	<b>-684.278</b>
Finantzaketa atxikia duten gastuen ondoriozko diruzaintza -gerakina	246.961	410.343
Baliabide atxikien diruzaintza -gerakina	2.734.013	2.865.134
Gastu orokorretarako diruzaintza -gerakina	-4.865.769	-3.959.755

## V.4. EGOERA-BALANTZE BATERATUA

## AKTIBOA

Deskribapena	2009	2008
<b>A IBILGETUA</b>	<b>91.806.326</b>	<b>53.089.085</b>
1 Ibilgetu materiala	72.486.425	36.625.912
2 Ibilgetu ez-materiala	119.546	119.546
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	16.495.311	16.336.641
4 Bidean diren obrak	2.112.655	
5 Herri-ondasunak	26.794	0
6 Ibilgetu finantzarioa	565.595	6.986
<b>B ZENBAIT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO GASTUAK</b>		
7 Deuseztatu beharreko gastuak		
<b>H ZIRKULATZAILEA</b>	<b>5.900.174</b>	<b>8.641.313</b>
8 Izakinak	0.00	12.757
9 Zordunak	4.534.876	4.233.885
10 Kontu finantzarioak	1.365.298	4.394.671
11 Finantzetaren egoera iragankorrak, aldizkatzeak eragindako doitzeak		
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>97.706.500</b>	<b>61.730.398</b>

## PASIBOA

Deskribapena	2009	2008
<b>A FUNTS BEREKIAK</b>	<b>87.745.612</b>	<b>51.762.671</b>
1 Ondarea eta erreserbak	69.867.850	34.461.524
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	131.304	5.496.158
3 Kapitaleko diru-laguntzak	17.746.458	14.304.989
Konturako dibidenduak	0	-2.500.000
<b>B ARRISKU ETA GASTUETARAKO HORNIDURAK</b>		
4 Hornidurak		
<b>H EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK</b>	<b>3.593.251</b>	<b>4.426.978</b>
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailuak	3.593.251	4.426.978
<b>D EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK</b>	<b>6.367.637</b>	<b>5.540.749</b>
5 Itxitako aurrekontuetako hartze kodunak eta aurrekontuez kanpokoak	6.367.637	5.540.749
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak		
<b>PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>97.706.500</b>	<b>61.730.398</b>

## V.5. GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA

## Ekitaldiko emaitza arruntak

ZOR			HARTZEKOAK		
Azalpena	ZENBATEKOAK 2009an:	ZENBATEKOAK 2008an	Azalpena	ZENBATEKOAK 2009an:	ZENBATEKOAK 2008an
3 Hasierako izakinak	-	-	3 Bukaerako izakinak	-	-
39 Izakinen balio-galtzeen probisioak	-	-	39 Izakinen balio-galtzeen probisioa	-	-
60 Erosketak	12.757	63.783	70 Salmentak	2.291.418	2.142.868
61 Langileria gastuak	9.059.126	8.347.949	71. Jabetzaren eta enpresaren errenta	559.977	531.571
62 gastuak                   Finantza -	244.929	354.685	72 Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuoak	3.654.633	2.403.788
63                               Zergak	-29.140	91.132	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	843.334	807.989
64.- Kanpo-zerbitzuak, lanak eta hornidurak	3.614.934	3.823.397	75 Ekitaldiko emaitzetara aldaturiko diru-laguntzak eta dohaintzak (1)	-	6.279.606
65 Gizarte prestazioak	-	-	76 Transferentzia arruntak	6.897.152	7.157.318
66 Ustiapeneko diru-laguntzak	-	-	77 Kapitalaren gaineko zergak	245.544	20.301
67 Transferentzia arruntak	1.408.323	1.031.493	78                               Bestelako diru-sarrerak	52.025	87.000
68 Kapital transferentziak	12.658	96.183	79 Daukaten helbururako aplikaturiko hornidurak	-	-
69 Amortizazio eta horniduretarako hornidura, ekitaldikoa	3.225	44.314	79 Daukaten helbururako aplikaturiko hornidurak	-	-
Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	217.271	5.577.505	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	-	-
GUZTIRA	14.544.083	19.430.441	GUZTIRA	14.544.083	19.430.441

(1) OHARRA: "75 Ekitaldiko emaitzetara aldaturiko diru-laguntzak eta dohaintzak" atalean jaso dira gero Ripaberriri saldu zitzaizkion udalaren lursailen lagapenaren emaitzak.

## Ekitaldiko emaitzak

ZOR			HARTZEKOAK		
AZALPENAK	ZENBATEKOAK 2009an:	ZENBATEKOAK 2008an	AZALPENAK	ZENBATEKOAK 2009an:	ZENBATEKOAK 2008an:
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	-	-	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	217.271	5.577.505
82 Ezohiko emaitza (saldo zorduna)	-	-	82 Ezohiko emaitzak (saldo hartzekoduna)	-	-
83 Balore-karteraren emaitzak (saldo zorduna)	-	-	83 Balore-karteraren emaitzak (saldo hartzekoduna)	-	-
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	95.751	82.665	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	9.784	1.318
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	131.304	5.496.158	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	-	-
GUZTIRA	227.055	5.578.823	GUZTIRA	227.055	5.578.823

## VI. IRUZKINAK, ONDORIOZTAPENAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, gure aburuz udalak bere egin behar dituen ondorio eta gomendio nagusiak, dituen antolaketa-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko.

### VI.1. ALDERDI OROKORRAK

#### VI.1.1. Aurrekontuaren eta Kontu Orokorra- ren alderdi orokorrak

2009ko aurrekontuaren indarraldia ez zen hasi urte bereko maiatzera arte, bere behin betiko onespena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren. Diru-sarreraren aurrekontu bateratuaren laburpenak, 2009ko maiatzaren 22ko 63 NAOn argitaratu zenak, bateratze-akats bat badauka, zeren ez baitu kontuan hartzen udalaren inbertsioen besterentzearen kapitulua, zeinak 2,7 milioi euro egiten baitu.

Ondoren, udalaren eta haren erakunde autonomoen 2009ko ekitaldiko aurrekontu bateratuaren zenbait magnitude azaltzen ditugu, bai eta haien eta 2008koen arteko alderaketa ere:

	2009	2008	Zorraren aldaketa 09/08
Aitorturiko betebeharrak	19.525.783	16.482.371	% 18
Likidaturiko eskubideak	17.967.469	17.153.363	% 5
Gastu arruntak (1etik 4ra)	14.235.099	13.393.260	% 6
Kapital gastuak (6tik 9ra)	5.290.685	3.089.111	% 71
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	14.733.519	13.192.975	% 12
Kapitaleko diru-sarrerak (6tik 9ra)	3.233.950	3.960.388	% -18
Aurrekontu-emaiza doitua	-841.458	-1.650.482	
Aurrezki gordina	706.221	90.317	% 682
Finantza-zama	1.041.528	1.121.394	% -7
Aurrezpen garbia	-335.307	-1.031.077	% -67
Zorpetze mailaren %	7%	8%	
Zorpetze mugaren %	5%	1%	
Zorpetze-ahalmenaren %	-2%	-8%	
Diruzaintzako gerakina, guztira	-1.884.795	-684.278	% 175
Gastu orokorretarako diruzaintza ko gerakina	-4.865.769	-3.959.755	% 23

Azterketa honetatik nabarmentzekoa da:

- Kapitaleko gastuak finantzatzeko desoreka, kapitaleko diru-sarrerengatik, zeren eta ez baitira bete udalaren jabetzapeko lurzatiak besterentzeari buruzko aurreikuspenak.

- Aurrezki garbiak hobera egin du, funtsean Erripagañan hasitako hirigintza jarduerarengatik diru-sarreraren ondorioz.

- Gutxitzera jo badu ere, aurrezki garbi negati-  
boari eusten zaio, eta harekin batera, zorpetze-  
ahalmenaren ezari.

- 2008ko guztizko diruzaintzako gerakinak 1,2 milioi euro egin du gora.

Informazio xede hutsetarako, adierazi behar dugu zazpi zerbitzutan<sup>(1)</sup> udaleko gastu arruntan ehuneko 60 kontsumitzen dutela: segurtasunaren eta poliziaren arloan, ehuneko 18; gizarte sutape-  
nean eta birgizarteratzean, ehuneko 16a; gizarte ekintzan, ehuneko 7; kulturean, ehuneko 6; ikaste-  
txe edo irakaskuntza zentroetan, ehuneko 5; kale-  
en eta bideen mantentzean, ehuneko 4; eta kirole-  
tan, ehuneko 4.

(1) Toki entitateek herritarrei ematen dizkieten zerbitzu nagusien kostuak kalkulatzeko Toki Administrazioiko Departamentuak garranturiko aplikazio informatikotik eskuratutako datuen arabera.



Comptos Ganberak, bere txostenetan, behin eta berriz gomendatu du finantza-bideragarritasuneko plan bat egin dadila, eta hartan bil daitezela bai hirigintza garapenaren ondorioz eta aplikatzea den presio fiskalaren ondorioz aurreikustekoak diren diru-sarrerak, bai gastu arruntaren kontroletik heldutakoak ere. Azken hori, kontuan izanda egungo zerbitzuen eta zerbitzu berrien kostua eta hark herritarrengan izanen duen eragina, bai eta zorpezea bera ere.

Udalak, 2006ko ekitalditik, diruzaintzako gutzitiko gerakin negatiboa dauka. Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina jada 2003an hasi zen negatiboa izaten, eta pixkanaka handitzen joan zen, 2009ko abenduaren 31n 4,9 milioi euroko zenbatekora iristeraino.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 230. artikulua ezartzen du zer neurri aplikatu behar diren diruzaintzagerakin negatiboko aurrekontua kitatzeko. 2008ko ekitaldiko urteko kontu bateratuei buruzko bere txostenean, udalak honakoa adierazi zuen: "ikusita gastuetan jaitsi beharreko kopurua handiegia dela, egokiagotzat jo da artikulua honetan ezarritako neurrian aplikazioa gradualki egitea, eta xede horrekin, 2009ko udal aurrekontuaren espedientearen, honako helburuak ezarri dira, eta ezarri da, era berean, hurrengo bideragarritasun plana aplikatuko dela:

1.- Diru-sarrerak eta gastu arruntak orekatzea, honako neurriak aplikatuz: 2009rako, gastu arruntari eustea; hurrengo urteetarako, gastu arrunta gutxitzea edo udalaren presio fiskala urtero % 15 handitzea.

2.- Diruzaintza orekatzea: arestian aipatutako oreka lortuta, diruzaintzaren emaitzak ez dira jada negatiboak izanen; egungo egoeraren leheneratzea lortuko da aldi berean aplikatuz batetik neurri horiek berak eta bestetik Erripagañako hirigintza unitatearen etorkizuneko garapenetik heldu diren diru-sarrerak."

2009ko ekitaldiko urteko kontu bateratuen txostenean, eranskinean jasotakoan, honakoa ageri da: "plan hau 2010erako aplikatzeko unea iritsita, bera betearazi ez eta hain zuzen ere haren guttiz aurkakoak diren neurriak aplikatu dira, zerga-tasen –eta, horrenbestez, diru-sarreraren– izoztea onetsi baita eta gastu arruntak handitu baitira."

Kontu orokorrari dagokionez, udalak ez ditu bertan sartu, eranskin gisa, 272/1998 Foru Dekretuaren 392. d) arauan ezarri bezala, "Ripaberri Desarrollo Urbano SL" sozietateari buruzko datuak, zeinaren ehuneko 51ko partaidetza baitu bere

osotasunean udalaren kapitalaz osaturiko Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateak.

*Hona gure gomendioak:*

- *Aurrekontua indarreko legeetan ezarritako epeetan onetsi behar da, udalaren kudeaketa ekonomiko eta finantzariarako tresna gisa erabili ahal izateko.*

- *Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 230. artikulua ezartzen dituen neurriak aplikatzea, diruzaintzako gerakin negatiboko aurrekontua kitatzeko.*

- *Datozen ekitaldietarako bideragarritasun finantzarioko plan bat presaz egitea, eta hartan jasotzea batetik funtzionamendu gastuen finantziazioa eta urteko zama finantzarioa, eta bestetik gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin negatiboa, aurreko ekitaldietan sortutakoa. Finantziario horretan, garrantzi berezia izanen dute aurreikustekoak diren diru-sarrera ez iraunkorrek, Erripagaña unitatearen hirigintza garapenetik heldu direnek.*

- *Kontu Orokorra osatzea, eta eranskin gisa sartzea "Ripaberri Desarrollo Urbano SL" sozietateari buruzko datuak.*

#### **VI.1.2. Beste alderdi orokor batzuk**

Udalak ez du diru-laguntzei buruzko ordenantza orokorrik, diru-laguntzak emateko irizpideak eta prozedura arautu dituenik.

Udalak 2009an eginiko inbertsio batzuek, zuzenean nahiz Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateari eginiko enkarguaren bitartez egindakoek (ikus VI.4 atala), etorkizunean udalaren gastu arruntek gora egitea ekar dezakete.

Erakunde autonomoei dagokienez, beharrezkoa da haien estatutuak osatu eta gaurkotzea, horrela haien benetako autonomia-maila agertzeraz emateko eta udalak haien jardueraren gainean erabiltzen dituen kontrol mekanismoak erakusteko.

Nafarroako Auzitegi Nagusiak epai bidez ezarri zuen 2008an zehaztu gabe dagoela Hilarión Eslava Musika Eskolaren izaera juridikoa eta, gaur egun, ezin dela tokiko erakunde autonomotzat hartu.

2010eko irailean, Burlatako eta Atarrabiako udalek hasiera batean onetsi dute aipatutako musika eskolaren kudeaketarako estatutuen testua.

*Hona gure gomendioak:*

- *Inbertsio proiektu berriak abian jartzeak eta urtero mantentzeak dakartzan gastu arruntak aztertzea.*

- *Dirulaguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokor bat onestea.*

- *Erakunde autonomoen estatutuak osatu eta gaurkotzea eta haien autonomia-maila eta udalaren kontrola islatzea.*

## VI.2. LANGILEAK

Langileen atalean aitortutako betebeharrak bate-ratuek 9.006.666 euro egiten dute; hau da, 2009an sortutako gastu guztien ehuneko 46 eta gastu arrunten ehuneko 63.

Langile-gastu bateratuetatik, udalari 7.932.087 euro dagozkio; Udalaren Kirol Patronatuari, 904.023 euro, eta Udalaren Kultura eta Jaierarako Patronatuari, 170.556 euro.

2008ko ekitaldiarekin alderatuta, kapitulu honek ehuneko 8ko gorakada izan du. Igoera hori esplikatzen da, neurri batean, tailer-eskolaren programaren barruan eginiko kontratazioengatik eta udalak 2009an gizarte-enpleguan eginiko politikengatik.

Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2009rako plantilla organikoa behin betiko onetsi zen 2009ko maiatzaren 29ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzearekin. Ekitaldian zehar, zenbait lanpostu huts amortizatu dira, plantilla organikoa egungo premien arabera egokitzeko. Prozesu hori 2010ean osatzen ari da. 2009ko abenduaren 31n, ehuneko 28 dira hutsik dauden lanpostuak.

Lanpostuak betetzeko deialdiak berraztertzen jarraitu dugu –2008an hasi eta 2009an amaitu zirenak–, eta hortik ondorioztatzen da araudi indarduna modu egokian betetzen ari dela. Lan hau egiten ari ginenean, antzeman genuen 2005-2007 urteetarako egin zen eta 2009rako luzatu zen Burlatako Udalaren langile funtzionarioentzako eta administrazio-kontratadunentzako Akordioaren 7. artikuluan (sustapenari buruzkoan) zenbait alderdi jasotzen direla deialdi murriztuei buruz, zein

ez baitzaizkio egokitzen 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuko 15. artikuluan ezarritakoari.

Gastu horien lagin bat aztertuta, ondorioztatzen da ordainsariak, oro har, betetako lanposturako erabakitakoak direla, egindako atxikipek zuzenak direla, eta langileria-gastuak behar bezala kontabilizatuta daudela.

*Hona gure gomendioak:*

- *Aztertzea ea komenigarria ote den aldi baterako lan kontratudunek betetzen dituzten plantilla organikoko lanpostu hutsak betetzeko behar diren deialdiak egitea.*

- *Udaleko langileen hitzarmeneko 7. artikulua egokitzea 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuko 15. idatz-zatian exijitutakoari, lanpostuak betetzeko deialdietan izaera murriztuaren aplikazioa mugatzeari dagokionez.*

## VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Gastu arrunten eta zerbitzuen gastu bateratuak 3.612.309 eurokoak izan dira 2009an, eta haien ehuneko 87 bete da. Hona hemen xehakapena:

Errentamenduak	60.347
Konponketak, mantentze-lanak eta zaintza	576.143
Materiala, hornidurak eta bestelakoak	2.967.820
Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak	7.999
<b>Guztira</b>	<b>3.612.309</b>

Gastuak ekitaldiko aitorturiko gastu guztien ehuneko 19 hartzen du, eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 25. 2008. urtearen aldean, ehuneko 4 jaitzi da.

Guztizko langile-gastu bateratuetatik, udalari 2.296.642 euro dagozkio; Udalaren Kirol Patronatuari, 829.509 euro, eta Udalaren Kultura eta Jaierarako Patronatuari, 486.158 euro.

2009ko ekitaldian esleitutako honako kontratazio-espeditenteak egiaztatu ditugu:

	Kontratu-mota	Prozedura	Esleipenaren zenbatekoa (BEZa barne)
Etxez etxeko laguntza zerbitzua	Laguntza kontratua	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	43.764
Udalaren kirol instalazioetako sorosleen zerbitzua	Laguntza kontratua	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	166.942
Kirol jardueren zerbitzua eta muskulazio aretoa 2009-2010	Laguntza kontratua	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	156.186
Zezen plazaren kudeaketa jaietan	Laguntza kontratua	Negoziatua, Europar Batasunean publizitatea eginez	11.700
Jaietako piroteknia jarduerak	Laguntza kontratua	Negoziatua, Europar Batasunean publizitatea eginez	16.000

Espediente hauei eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bati buruz eginiko azterketaren ondorioz, egiaztatu da behar diren fakturekin justifikatuta daudela eta aplikatzekoa den araudia arrazoiz errespetatu dela, nahiz eta hobetzeko moduko alderdi hauek antzeman diren:

- Kultura Patronatuaren kultur jardueretarako laguntza teknikoko zerbitzu batzuek, 2009an, bere zenbatekoaren arabera kontratazio-prozedura egokia izapidetzea eskatuko lukeen gastu bolumena izan dute.

- Kirol Patronatuak eginiko kontratazio espedienteek ez dituzte beti biltzen Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legeko kontratazio prozeduratan aurreikusitako dokumentu eta izapide guztiak.

*Hona gure gomendioak:*

- *Bai udalak, bai kultur eta kirol patronatuek kontratazio publikoa arautzen duten prozedurak aplikatzea.*

- *Kontratazio espedienteak osatzea kontratazioari buruz aplikatzekoa den araudian exijitzen diren dokumentu eta izapide guztiekin.*

#### VI.4. INBERTSIOAK

6. kapituluak, "Inbertsioak" izenekoak, 2009an 4.416.599 euroko betebeharrak aitortu bateratuak jasotzen ditu. Horrek, izan ere, ehuneko 64ko exekuzioa esan nahi du, eta 2009ko aurrekontuan betetako guztiaren ehuneko 23 egiten du.

2008. urtearekin alderatuta, inbertsioen gastuak ehuneko 105 egin du gora, funtsean 9/2008 Errege Lege Dekretuak araututako Toki Inbertsioen Estatu Funtzaren babesean eginiko jarduketaren ondorioz: Erripagañan belar artifizialeko futbol zelaia egitea, udal jauregitxo zaharberritzea gizarte etxe bihurtzeko, eta udal igerilekuetako tabernan zaharberritze-lanak egitea.

Funts horrekin, zeina banatzen baita 2007ko erroldako populazio-zenbatekoen proportzioan, Burlatako Udalak 3,3 milioi euroko kredituak sortu ditu. Obra horiengatik 2009an aitortutako betebeharrak, zeinak 2010ean amaitu baitziren, 2,2 milioi euro egin zuten.

Berrikusi egin dira kapituluko gastu-lagin bat eta udalaren honako kontratazio-espedienteak:

	Kontratu-mota	Prozedura	Esleipenaren zenbatekoa (BEZa barne)
Udalaren jauregitxo bat zaharberritzea (2. fasea)	Obrak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	1.274.508
Burlatako Erripagañan belar artifizialeko futbol zelaia eta ikusleentzako mailak egitea	Obrak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	1.353.448
Luma-ibilgailua erostea	Hornigaiak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	168.780

Eginiko berrikuspenari jarraituz, arrazoiz errespetatu da kontratazioari buruzko araudia, kasu batean izan ezik: kirol patronatuak, kontratazio-prozedurarik gabe, traktore bat erosi du, 20.548 euro ordainduta (BEZa barne).

Aurrekontuan jasotako inbertsioez gainera, udalak, aurrekontuan hura jaso gabe, bere tresnentea den Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateari –zeinak ez baitu baliabide propiorik– enkargatu dio proiektu batzuk idazteko eta haien zuzendari-

tza teknikoaz arduratzeko, bai eta obra batzuk egiteko ere.

Enkargu horiek Osoko Bilkurak onetsi ditu, baina ez da inon ageri enkargu bakoitzerako behar den espedientea egin denik, non izapide tekniko, juridiko, aurrekontukoak, kontrolekoak eta gastua onestekoak jasoko diren. 2009ko abenduaren 31n

eginiko enkarguen esleipenaren emaitza (ikus VI.8 atala) 42 milioi euro ingurukoa dela jo da (BEZa kenduta).

Berrikuspene hori osatu dugu Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateak izapidetutako ondoko espedienteekin –udalaren enkarguetako batzuei dagozkien–:

	Kontratu-mota	Prozedura	Esleipenaren zenbatekoa (BEZa barne)
0-3 urteko haurrentzako zentroa egitea	Obrak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	1.969.765
Obra-biltegi bat eraikitzea eta tailer-eskola	Obrak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	1.785.880
Udal igerilekuen ontziak egokitzea	Obrak	Negoziatua, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea	548.781
Tailer-eskolako zerbitzu anitzetarako erakina egiteko obrarako zuzendaritza-eta koordinazio-proiektuaren idazketa	Laguntza kontratua	Negoziatua, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea	146.416

Haiek aztertuta, ondorioztatzen da Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateak operazio horiek direla-eta egin duen izapidetzean aplikatzekoak zaizkion kontratazio administratiboaren arloko lege printzipio guztiak bete direla.

*Hona gure gomendioak:*

- *Kirol Patronatuaren kontratazio-espeditentak kontratazioari buruzko arauetan aurreikusitako existentzia guztiekin izapidetzea.*

- *Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateari eginiko enkarguak behar bezalako tresnen bidez gauzatzea eta haiek justifikatzea.*

- *Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateari eginiko enkarguei buruzko informazioa osatzea udalak eginiko kontuen oroitidazkian, haien datu ekonomikoekin, ekitaldiko gastua eta etorkizuneko ekitaldietakoak adieraziz.*

#### VI.5. DIRU-SARRERAK

Ekitaldian aitorturiko diru-sarrerera bateratuak 17.967.469 eurokoak izan ziren. Haien behin betiko aurrekontuaren ehuneko 77 likidatu da, diru-sarreen aurreikuspenak ez baitira bete inbertsio errealak besterentzeari buruzko kapituluetan (2,7 milioi eurotik ehuneko 28) eta kapital transferentziei buruzkoetan (4,9 milioi eurotik ehuneko 50).

2008ko ekitaldiarekin alderatuta, operazio arruntengatik diru-sarrerak, zeinek 2009ko gutzitzko diru-sarrerera bateratuen ehuneko 82 egiten baitute, ehuneko 12 egin dute gora; kapitaleko operazioetatik heldu direnek, berriz, ehuneko 12 egiten dute, eta ehuneko 18 egin dute behera. Hona zehaztapena, kapitulu ekonomikoen arabera:

Diru-sarreen kapituluak	Aitorturiko eskubideak, 2009	Aitorturiko eskubideak, 2008	Aldea, ehunekotan 09/08
1 Zuzeneko zergak	3.674.536	3.192.056	% 15
2 Zeharkako zergak	1.286.015	207.742	% 519
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerak batzuk	2.586.037	2.358.944	% 10
4 Transferentzia arruntak	6.897.153	7.157.318	% -4
5 Ondare diru-sarrerak	289.778	276.915	% 5
Gastu arruntak (1etik 5era)	14.733.519	13.192.975	% 12
6 Inbertsio errealeen besterentzea	757.950	523.943	% 45
7 Kapital transferentziak	2.460.306	3.428.249	% -28
8 Finantza-aktiboak	15.694	8.196	% 91
9 Finantza-pasiboak	0	0	
Kapitaleko diru-sarrerak (6tik 9ra)	3.233.950	3.960.388	% -18
Diru-sarrerak, guztira	17.967.469	17.153.363	% 5

2009ko diru-sarrera arrunten handitzearen arrazoa hirigintza-jarduketak izan dira bereziki, hain zuzen ere Erripagañako unitatean garatzen ari direnak. Ondoren aurkezten dugu kontusail horiek 2008ko urtearen aldean nola aldatu diren:

	2009	2008	09-08 aldaketa	09/08 aldea, ehunekotan
Lurren balio igoeraren gaineko zerga	462.584	188.021	274.563	% 146
Eraikinen, instalazioen eta obren gaineko zerga	1.286.015	207.742	1.078.273	% 519
Hirigintza-lizentziak	231.980	43.331	188.649	% 435
Guztira	1.980.579	439.094	1.541.485	% 351

Diru-sarreraren aurrekontu bateratuko kontusailen lagin baten gainean eginiko azterketatik, ondorioztatu dugu, oro har, egoki izapidetu eta kontabilizatu direla, nahiz eta isunak izapidetzeko egungo prozedurarekin –2007an aldatu zen– kobratutako isunak baizik ez diren jasotzen aurrekontuan.

*Hona gure gomendioak:*

- *Diru-sarreraren aurrekontua egitea egiazko aukeren arabera, egungo egoera ekonomikoa kontuan izanda.*
- *Isunak kudeatzeko prozedura osatzea, hala ere moduz non kobratzeko dauden isunen zenbatekoa ezagutuko baita.*

#### VI.6. INBENTARIOA-IBILGETUA

Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta gaurkotzeko dago. 2009an, udalaren jabetzapeko lursailak erregistratu dira, katastroan ageri diren datuen arabera.

Burlatako Udaleko Osoko Bilkurak, 2010eko maiatzaren 27an eginiko bilkuran, gaurkotze hori onetsi zuen, 2009ko abenduaren 31tik aurrerako eraginekin; hain zuzen ere, 33.471.616 eurokoa da.

*Hona gure gomendioak:*

- *Udalaren ondasun eta eskubide guztien inbentario balioztatua gaurkotzea eta onestea.*
- *Udal ondasunak –jabari publikokoak, ondarekoak eta herri ondasunak– eskritoretan jaso eta erregistratzeko prozesua osatzea.*
- *Udalaren inbentarioa etengabe gaurkotzea eta kontabilitatearekin lotua egotea ahalbidetuko duten prozedurak taxutu eta aplikatzea.*

#### VI.7. HIRIGINTZA

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea finkatzen zuen, 2006ko apirilera artekoa, indarreko plangintzak homologatu eta egokitzeko.

Burlatako Udalaren Antolamendu Plan Orokorra 1991n onetsi zen. 2005eko ekainean, udaleko Osoko Bilkurak Lurraldearen Erabilerarako Estrategia eta Eredua (LEEE) onetsi zuen, eta Nafarroako Gobernuari igorri zion. Gaur egun, hura onesteko zain gaude. Horrenbestez, oraindik ere indarrean dago 1991n onetsitako plan orokorra.

2009ko abenduaren 31n, lurzorua udal ondarea ez da kudeatu entitatearen gainerako ondasunetatik bereizita, eta ez da sortu ondasun horien sarrerak eta irteerak jasotzeko erregistroa. Hala eta guztiz ere, 2009an, akats horri konponbidea emateko jarduerak egin dira. Horrela, udalaren Osoko Bilkurak, 2010eko maiatzaren 27an, Lurzorua Udala Ondarearen Erregistroa onetsi zuen.

*Hona gure gomendioak:*

- *Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenetara moldatzea hirigintza-plangintza.*
- *Udalaren lurzoru-ondarearen erregistroa eta inbentarioa eratzea, kontuan izanda gainerako ondasunetatik bereizita kudeatu behar dela, eta indarrean dagoen legedian jasotako helburuei lotuta dagoela, izaeraz.*

#### VI.8. BURLATAKO UDALAREN HIRIGINTZA SOZIJETATEA, SL

Udalak, 2005eko irailean, sozietate publiko bat eratzeko espediente administratiboa onetsi zuen. Sozietate horren helburua da udalaren jardueran ahalik eta eraginkortasun handiena lortzea, zahar-

berritzea sustatzeko, etxebizitzak eta bestelako eraikinak sustatzeko, lurzorua urbanizatzeko, hiri-gune degradatuak suspertzeko eta, ondorioz, orube eraikigarrien eta eginen diren eraikinen prezioak –salmentakoak nahiz alokairukoak– jaisteko.

2006ko otsailean, Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatea SL sortu zen, 1,8 milioi euroko kapital sozialarekin eta 664.557 euroko emisio-primarekin. Burlatako Udalak berak jarri zituen diru-zenbateko horiek osorik, diru horretan baloratutako lursail baten lagapenaren bitartez.

Burlatako Udalak honako lursailak laga dizkio dohainik Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatea SLri, Erripagañako udalez gaindiko plan sektorialaren birzaitze-proiektuaren ondorioz, haiek hirigintzaren aldetik kudea ditzan eta etxebizitzaren sustapen publikoa egin dezan:

- 2007ko azaroan, honako lursailak: B-2.1, B-2.2, B-2.3 eta B-2.4.

- 2008ko urrian, honakoak: B.1.2, B.1.3 eta B.1.4.

Helburu horiek betetzeko, Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateak deialdi bat egin du bi lagapenentarako, bazkide pribatu bat hautatuz sozietate misto bat eraikitzeke; horrek inplizituki zeraman lursailak salmenta bidez eskualdatzea.

Azken deialdia 2009ko apirilean onetsi zuen Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatearen Administrazio Batzarrak. Erripagañako B.1.2, B.1.3 eta B.1.4 lursailak sustatu eta garatzeko sozietate

misto berria eraikitzeke baldintza-orriak eta deialdia Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratu ziren.

Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateak bi sozietateetan duen partaidetza ehuneko 51koa da; bazkide pribatuak –bi sozietateen kasuan, bera da, NASIPA, SL–, berriz, ehuneko 49 dauka. Honakoak dira deialdi horien ondoriozko sozietateak:

- B-2.1, B-2.2, B-2.3 eta B-2.4 lursailentarako: “Ripaberri Desarrollo Urbano S.L” (ikus VI.9 atala), zeina 2008ko ekainean eratu baitzen. 7,4 milioi euro ordaindu zituen lursail horientatik. Kudeaketarengatik portzentajea ehuneko 4koa da.

- B.1.2, B.1.3 eta B.1.4 lursailentarako: “Erripagañako Desarrollo Urbano SL”, 2010ean eraturia. Gure lanak hartzen duen aldia 2009ko ekitaldia den arren, egokitzen jo dugu hori aipatzea. Aipatutako lursailentatik eskaintza 7,7 milioi eurokoa izan da; kudeaketarengatik portzentajea, berriz, ehuneko 0,25koa izan da.

Udalak munta handiko inbertsioak enkargatu izan dizkio Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateari, nahiz eta azken horrek baliabide propioak ez duen, eta, gainera, proiektu horien kontrola eta gainbegiratzea ere haren esku uzten du.

Inbertsioei buruzko VI.4 atalean adierazi dugun bezala, udalak Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateari enkargatu dizkio bai proiektu batzuen idazketa eta zuzendaritza teknikoa, bai obren exekuzioa bera ere. 2009ko abenduaren 31n kalkulaturako esleipenaren zenbatekoa, guztira, 4,2 milioi eurokoa da (BEZik gabe). Hona xehetasunak:

	Esleipenaren zenbatekoa (BEZa kenduta)
0-3 urteko haurrentzako zentroa egitea	1.698.066
Futbol zelaiko obrarako proiektua idaztea eta obren zuzendaritza. I. fasea.	72.655
Udal igerilekuen ontziak egokitzea	473.087
Tailer-eskolako obrarako proiektua idaztea eta obra zuzentzea	126.221
Obretarako eraikina eta tailer-eskola eraikitzea	1.539.552
Gazteriaren Etxea obrarako proiektua idaztea eta obraren zuzendaritza	140.000
Futbol zelaiko obrarako proiektua idaztea eta obren zuzendaritza. II. fasea.	114.800

Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatearen 2009rako diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspenak –udalaren 2009rako aurrekontu bateratuan sarturik dago– enkarguetarako gastua jasotzen du.

Halaber, udalak Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateari enkargatu zion 558.609 euro ordain zitzala, bi lursail erosteko hirigintza-hitzarmenari jarraituz, eta 1,9 milioi euro, berriz, udalaren lursail batzuk urbanizatzeko kuoten aurretiko ordainkengatik.

Enkargu horiei dagokienez, Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatearen egoerari buruzko balantzeak, 2009ko abenduaren 31n, honakoa jasotzen du: “Bidean diren obrak”: 2,1 milioi euro; “Epe luze-ko inbertsio finantzarioak”: 558.609 euro, eta “Merkataritza-zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk”: 1,9 milioi euro.

Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatearen emaitzan, 2008an, 6 milioi euroko etekina ageri da; horietatik, udalari 2,5 milioi euro banatu zizkion, konturako dibidendu gisa. 2009an, berriz, 28.471 euroko galera izan ditu.

Kontratuei buruzko 6/2006 Foru Legeak, bere esparru subjektiboan, Nafarroako toki entitateak eta haiei lotutako entitateak jasotzen ditu. Enkargutako inbertsioei egin zaien aplikazioa inbertsioei buruzko VI.4 atalean aztertu da.

Azkenik, hirigintzaren kudeaketan, Comptos Ganbera honen iritziz, gardentasun eta kontrol maila gorenak nagusitu behar dira. Administrazioak berezkoa duen jarduera hori egite aldera udalak zenbait hirigintza-sozietate sortu izanak oztopatu egiten du printzipio horiek betetzea, eta udalarentzat zailagoa egiten aipatu jarduera antolatzea eta kudeatzea. 2009an, zailtasun hori areagotu egin da, udalak bere ente instrumentalari egoniko enkarguen kopuru handia dela eta. Ez dira ageri ez haien finantziarioa ez eta amaierako titularitatea ere.

#### *Hona gure gomendioak:*

- *Udalak diseinatu eta aplikatzea udalaren kapitaleko sozietateei, jardun orotan, ezarri beharreko finantza- eta eraginkortasun-kontrolerako prozedura juridiko eta teknikoak.*

- *Udalarengandik jasotako enkargu bakoitzeko definitzea hark berarekin dakartzan eskubide*

*eta betebeharrak guztiak, Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatearen egoera finantzarioan izan dezaketenera eragina dela eta.*

- *Udalak bere burua antolatzeko ahalmena duenez bai eta autonomia ere udal-hirigintza kudeatzeko egokien irizten dion modua aukeratzeko, azter dezala gaur egun jarduera hori kudeatzeko modua, hirigintza-sozietateen bidezkoa, bai eta kudeaketa-eredu hori bat datorren aipatu jarduerak bilatu beharreko interes publikoaren eta jarduteko gardentasunaren helburuarekin.*

#### VI.9. RIPABERRI DESARROLLO URBANO, SL

2008ko ekainaren 17an, Ripaberri Desarrollo Urbano SL sozietatea eratu zen. Haren kapital soziala 3.100 eurokoa zen, eta kapital sozial horretatik ehuneko 51 Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatearena zen eta ehuneko 49, berriz, bazkide pribatu batena, zeinak ehuneko 4 jasoko baitzuen kudeaketa-gastuen kontzeptu gisa.

Sozietate-xedea, besteak beste, edozein izae-ratako orubeak, lursailak eta finkak erosi, saldu, administratu eta urbanizatzea da, eta batez ere, Burlatako udalerrian etxebizitzak sustatu eta eraikitzea, Erripagañako udalez gaindiko plan sektorialaren esparruan.


Ripaberri Desarrollo Urbano SL hasia da babes ofizialeko 48 etxebizitzaren eta prezio tasatuko 158 etxebizitzaren eraikuntza sustatzen, Erripagañako udalez gaindiko plan sektorialaren esparruan. Nafarroako kontratazio atariak, 2008ko azaroaren 11n, obra horiek lizitzatzeko iragarki bat argitaratu zuen, 20 milioi euroko aurrekontuarekin (BEZik gabe). Ripaberriren sozio pribatua (NASIPA SL) kontratuaren adjudikazio-hartzaile suertatu da 2009an, 19.976.814 euroko zenbatekoa hartu baitu (BEZik gabe), eta harena izan zen aurkeztutako eskaintza bakarra.

Kanpoko auditore batzuek eginiko auditoria finantzarioko txosten bat dauka sozietate horrek, eta txosten horretan aldeko iritzia ageri da.

Txosten hau eman da indarrean dagoen araudiak ezarritako izapide guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2011ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas



Une honetan kanpoko entitateek emandako zerbitzuak



## **Beriaingo Udalari eta Morelucea hirigintza sozietateari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko abenduaren 29an eginiko bilkuran, Beriaingo Udalari eta Morelucea hirigintza sozietateari buruz Comptos Ganberak egindako fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea erabaki zuen.

Iruñean, 2010eko abenduaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Beriaingo Udalari eta Morelucea hirigintza sozietateari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina**

### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (33. or.).
- II. Helburua (34. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (35. or.).
- IV. Iritzia (35. or.).
  - IV.1. Udalaren 2009ko kontua (35. or.).
  - IV.2. Morelucea, S.A.U. sozietatearen 2009ko Urteko Kontuak. (37. or.).
- V. 2009ko finantzen egoera-orrien laburpena (38. or.).
  - V.1. Udalaren 2009ko Kontua (38. or.).
  - V.2. Morelucea, S.A.U. sozietatearen 2009ko Urteko Kontuak (43. or.).
- VI. Udalari buruzko iruzkin, ondorio eta gomendioak (45. or.).
  - VI.1. Alderdi orokorrak (45. or.).
  - VI.2. Udaleko langile-gastuak (45. or.).
  - VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (46. or.).
  - VI.4. Transferentzien ondoriozko gastuak (46. or.).
  - VI.5. Inbertsioak (46. or.).
  - VI.6. Inbentarioa-lbilgetua (47. or.).
  - VI.7. Aurrekontuko diru-sarrerak (47. or.).

VI.8. Gorabeherak (48. or.).

VI.9. Hirigintza (48. or.).

VII. Morelucea sozietateari buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (49. or.).

VII.1. Sozietatearen jarduna (49. or.).

VII.2. Urteroko kontuak (49. or.).

VII.3. Kontratazioa (51. or.).

VII.4. Egoera fiskala (52. or.).

VII.5. Gorabeherak (52. or.).

VII.6. Gomendioak (53. or.).

Eranskina. Udalaren organigrama, 2009ko abenduaren 31n (54. or.).

Beriaingo Udaleko alkateak behin-behineko txosteneri aurkeztutako alegazioak (55. or.).

Aurkeztutako alegazioei Comptos Ganberak emaniko erantzuna (56. or.).

### **I. SARRERA**

Comptos Ganberak Beriaingo Udalaren kontua eta udalaren partaidetzako Morelucea, S.A.U. sozietatearen urteko kontuak, 2009ko ekitaldikoak, fiskalizatu ditu. Beriaingo Udal Planeko UD-1 unitatean etxebizitzak sustatzea da sozietate horren jarduna, eta Udalak sozietatearen kapital sozial osoa du.

Sozietate horren administrazio kontseiluak bere urteko kontuei buruzko auditoria bat egin zezan eskatu zion Ganbera honi 2009ko uztailaren 9an. Geroago, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak erabaki zuen, 2010eko otsailaren 1ean hartutako erabaki bidez eta Nafarroa Bai parlamentu-taldeak hala eskatuta, Beriaingo Udalari eta Morelucea sozietateari buruzko fiskalizazio txosten bat eskatzea. Eskatutakoak betetzeko, Ganbera honen 2010eko Fiskalizazio Programan sartu zen 2009ko ekitaldiko kontuei buruzko azterlana egitea.

Beriaingo Udalak 3.651 biztanle ditu 2009ko urtarrilaren 1ean, eta hauexek ditu 2009ko abenduaren 31ko zifra ekonomiko adierazgarrienak:

Entitatea	Zenbatekoa		Langileak 2009-12-31n
	Gastuak	Diru-sarrerak	
Beriaingo Udala (aurrekontu-izaerakoa)	5.764.710	6.275.890	20
Morelucea S.A.U. (ekonomia-izaerakoa)	7.566.217	7.501.975	-

Udalak ez dauka erakunde autonomorik eta Iruñerriko Mankomunitatean sartuta dago, zeinak kudeatzen baititu ur-zerbitzuak, hiri hondakinak eta eskualdeko garraioa.

Sozietateak ez dauka langilerik plantillan, eta hirugarrenekin kontratatzen ditu administrazio arloan dituen beharriak nahiz etxebizitzaren sustapena eta eraikitzea.

Honakoa da, funtsean, 2009ko ekitaldian Beriaingo Udalarari aplikatzekoa zaion araubide juridikoa:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Araubidea gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko 7/1985 Legea.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena.
- Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legea, 1/2007 Foru Legeak toki entitateei buruz ezarritako berezitasunekin.
- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- 35/2002 Foru Legea, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzkoa.
- Azaroaren 28ko 9/2008 Errege Lege Dekretua, Toki-inbertsioko estatu-funts bat eta ekonomia nahiz enplegua dinamizatzeke estatu-funts berezi bat eratzen dituenak.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 Foru Dekretuak dira, zeinak Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.
- Udalaren 2009ko aurrekontuaren exekuzio oinarriak eta gainerako barne arauak.

Morelucea, S.A.U. sozietatea toki araubidean ezarritakoak arautzen du, bai eta merkataritza-araubide indardunak ere, batez ere Enpresa txiki eta ertainendako Kontabilitate Plan Orokorra (azaroaren 16ko 1515/2007 Errege Dekretua), plana higiezinaren enpresei egokitzeari buruzko berriazko arau indardunak eta Sozietate Anonimoen buruzko Legeko Testu Bateginak (egun, Kapital Sozietateen buruzko Legearen Testu Bateginak).

Azterketa lana 2010eko uztailetik irailera bitarte egin dugu.

Txostenak zazpi atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren eta hirugarren atalean ageri dira txostenaren helburuak eta egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, gure iritzia ematen dugu udalaren kontuari buruz eta Morelucea sozietatearen urteko kontuei buruz, eta bosgarrenean kontu horien laburpena jaso dugu. Seigarren eta zazpigarren ataletan iruzkinak, ondorioak eta gomendioak ematen ditugu, gure ustez egokiak direnak udalaren eta haren sozietatearen antolamendua eta barne kontrola hobetzeko. Honekin batera doan eranskinean, udalaren organigrama ageri da.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak eman nahi dizkiegu udaleko eta haren sozietateko langileei.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Beriaingo Udalaren eta Morelucea, S.A.U. sozietatearen 2009ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Beriaingo Udalaren eta Morelucea, S.A.U. sozietatearen 2009ko kontu orokorrak fidelki islatzen ote dituen, alderdirik behinenetan, entitatearen ekonomia- eta finantza-egoera, aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, 2009ko abenduaren 31n lortutakoak, eta oro har onartuak

diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu ote diren eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Aplikatzekoa zaien legedia zer neurritan betetzen duten Beriaingo Udalak eta Morelucea, S.A.U. sozietateak 2009an.

c) Beriaingo Udalaren eta Morelucea, S.A.U. sozietatearen finantza-egoera 2009ko abenduaren 31n.

Txostenarekin batera, beharrezkoak iruditzen zaizkigun gomendioak eman ditugu, bi entitateen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetze aldera.

### III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Comptos Ganberak Beriaingo Udalaren kontua eta udalaren partaidetzako Morelucea, S.A.U. sozietatearen urteko kontuak fiskalizatu ditu.

Udalaren kontu orokorrak ondokoak jasotzen ditu, besteak beste:

- Entitatearen beraren kontua.
- Morelucea sozietatearen urteko kontuak.
- Kontu Orokorraren eranskinak: oroitidazkia, zorraren egoera eta kontu-hartzailatzaren txostena.

Hona hemen udalak berak aurkezturiko finantzen egoera-orri nagusiak:

- Aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaizta eta entitatearen diruzaintza-gerakina.
- Egoera-balantzea eta galeren eta irabazien kontua.

Ez dituzte aurkeztu Udalaren eta haren partaidetzako Morelucea, S.A.U. sozietatearen kontu bateratuak.

Enpresa txiki eta ertainendako Kontabilitate Plan Orokorrarekin bat, ondokoek osatzen dituzte Morelucea, S.A.U. sozietatearen urteko kontuak:

- Egoerari buruzko balantzea
- Ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria.
- Galera eta irabazien kontua
- Oroitidazkia.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araueri jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguru-

barren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Zehazki, udalari dagokionez, aurrekontuen eta finantza egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarriko prozedurak ere; orobat aztertu dira antolaketa, kontabilitate eta barne kontroleko oinarriko alderdiak; sozietateari dagokionez, berriz, urteko kontuak berrikusi dira, eta orobat aztertu dira antolamendu arloko oinarriko alderdiak, egindako jarduera, legezketasuna eta udalarekin egindako eragiketa nagusiak.

### IV. IRITZIA

#### IV.1. UDALAREN 2009ko KONTUA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Beriaingo Udalaren 2009ko ekitaldiko kontua aztertu dugu. Udalaren erantzukizuna da kontu horren prestaketa eta edukia.

Egindako berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau adierazi behar dugu:

#### 1. Udalaren 2009ko ekitaldiko Kontua

• Ondasunen inbentarioa 2003koa da, eta urteko aurrekontu-betetzeko mugimenduekin gaurkotzen da, alde aurretik eskualdatze automatiko horien analisirik eta arazketarik egin gabe. Hortaz, ezinezkoa izan da udalaren ibilgetuaren kontabilitate saldoa –21,9 milioi eurokoa, 2009ko abenduaren 31n– zentzuzkoa dela egiaztatzea.

• Zuhurtziaren irizpidea alegatuta, egoera-balantzeak ez ditu zor gisa islatzen kobratzeke dauden 2,3 milioi euro, Morelucea, S.A.U. sozietateari lurzati bat saltzearen ondorioz kobratzeke dagoen zatiari dagozkionak. 2009ko abenduaren 31ko diruzaintzako gerakinean ere ez da zenbateko hori jaso.

Arestian aipaturiko salbuespenen ondorioak alde batera utzita, udalaren 2009ko ekitaldiko Kontuak fidelki islatzen ditu, alderdirik behinenetan, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate publikoko printzipio eta araueri jarraituz.

#### 2. Legezketasuna

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke udalaren jarduera ekonomiko eta finantza-

ria, oro har, legezkotasun-printzipioari jarraituz egiten dela.

### 3. 2009ko abenduaren 31ko ekonomia- eta finantza-egoera

Beriaingo Udalak 2.706.165 euroko diru-sarrera arruntak izan ditu 2009an, eta funtzionamendu gastuak eta haren zorpetzearen ondoriozko finantza-zama 2.901.163 eurokoak dira; horrenbestez, aurrezki garbi negatiboa 194.998 eurokoa da; alegia, diru-sarrera arrunten % 7,21. Finantza-zamak diru-sarrera arrunten ehuneko 5,27 egiten du, eta zorpetze-muga negatiboa da (ehuneko 1,94).

Epe luzerako zor bizia 2.617.164 eurokoa da 2009ko abenduaren 31n. Kopuru horren barruan

sartzen da 1.500.000 euroko mailegu bat, 2009an hitzartu zena ekitaldian egindako inbertsioen zati bat finantzatzeko.

Jarraian, Udalaren 2009ko ekitaldiko zenbait datu ekonomiko esanguratsu adierazten dira:

- 2008ko ekitaldiarekin alderatuta, Udalaren behin betiko aurrekontuak ehuneko 21 egin du gora, 4,9 milioi eurokoa izatetik 5,9 milioi eurokoa izatera igaro baita.

- Honakoak izan dira 2009ko ekitaldian aitortutako betebeharrak eta eskubideak, bai eta horien betetze mailak eta 2008ko alderaketa ere:

	Euroak		2008/2009 aldaketa, ehunekotan
	2009	2008	
Aitorturiko betebeharrak	5.764.710	4.596.972	% 25,4
Betetzearen ehunekoa	% 96,5	% 93,1	
Aitortutako eskubideak	6.275.890	4.166.151	% 50,6
Gauzatzearen ehunekoa	% 105,1	% 84,4	

Aitorturiko betebeharrak ehuneko 25,4 egin dute gora 2008arekin alderatuta. Kapitulu guztietan egin dute gora, salbu eta ondasun arrunten eta zerbitzuen kapituluan, non ehuneko 6,5 egin baitute behera. Aipagarriak dira inbertsio errealeko igoeira (ehuneko 58,6), langile-gastuena (ehuneko 16,6) eta transferentzia arruntak (ehuneko 14,1).

Aitorturiko eskubideak ere nabarmen egin dute gora (ehuneko 50,6); aipagarriak dira ondoko igoeirak: inbertsio errealeko finantzatzeko jaso diren kapital-transferentziak (ehuneko 598), finantza-pasiboak eta tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak (ehuneko 57,3). Bestalde, zerga bidezko diru-sarrerak behera egin dute, batez ere EIOZak eta JEZak.

- 2009an, aurrekontuaren emaitza doitu negatiboa izan da (94.992 euro). 2008an ere negatiboa izan zen (215.959 euro).

- Udalaren aurrezki garbia negatiboa izan zen 2009an; izan ere, funtzionamendu gastuak eta finantza-zama baino txikiagoak izan dira diru-sarrera arruntak (194.998 euro); 2008an, aldiz,

positiboa izan zen (582.770 euro). Aldaketa negatiboa horren arrazoiak da EIOZek, plusbalioak eta JEZek behera egin izana; gastu arruntek eta finantza-gastuek, aldiz, gorako joera dute.

- Udalaren guztizko diruzaintzako gerakina positiboa izan da 2009an eta 2008an (759.079 eta 209.354 euro, hurrenez hurren). Finantzaketa atxikia duten gastuen eta baliabide atxikiaren zenbatekoak aintzat hartuta, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina positiboa izan da 2009an eta 2008an (33.423 eta 158.942 euro, hurrenez hurren).

Arestiko iruzkinak agerian uzten dute finantza-egoera okertzen ari dela, diru-sarrerak murriztearen ondorioz, batez ere eraikuntzaren sektoretik heldu diren diru-sarrerak; gastu arruntek, aldiz, gorako joera mantentzen dute.

*Udalak neurri zuzentzaileen multzo bat taxutu behar du, finantza-egoeran ikus daitekeen joera negatiboa konpontzeko eta gastuen eta diru-sarrera arrunten arteko oreka lortzeko.*

#### IV.2. MORELUCEA, S.A.U. SOZIEATEAREN 2009ko URTEKO KONTUAK.

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, sozietate horren 2009ko ekitaldiko Kontua aztertu dugu. Sozietatearen ardura da kontu horren prestaketa eta edukia.

Egindako berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau adierazi behar dugu:

##### 1. Morelucea sozietatearen urteko kontuak.

- Izakinak gainbalioetsita daude 2009ko abenduaren 31n, 416.228 euroan hain zuzen ere. Hiri-lurzoruak eta abian diren sustapenak erostearen kostuak gastu egotzi ezinekoak jasotzen ditu (127.569 euro, gutxi gorabehera), eta sustapenaren lehen faseko galera 288.659 euroan balioetsi da.

- Eraikuntza-obraen ziurtagiriak jasotze datan erregistratzen dira kontabilitatean; halatan, 2009ko abenduaren 31n ez dira jasotzen ez izakinak ez 2009ko urrian, azaroan eta abenduan egindako baina 2010ean fakturaturako obrei dagozkien pasiboak (1,6 milioi euro). 2008ko abenduaren 31n 1,3 milioi euro egiten zuten kontzeptu hori dela-eta aitortu gabeko pasiboek eta izakinek.

Arestian aipatutako salbuespenen ondorioak alde batera utzita, Morelucea, S.A.U. sozietatearen 2009ko ekitaldiko urteko kontuek ongi islatzen dute alderdirik esanguratsuenetan sozietate horren 2009ko abenduaren 31ko finantza-egoera eta ondarea, bai eta sozietatearen operazioen emaitzak eta data horretan bukatu zen urteko ekitaldiko ondare garbiko aldaketak ere. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa dute, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta Espainiako araudian onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz.

##### 2. Legezketasuna

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke sozietatearen jarduera ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezketasun-printzipioari jarraituz egiten dela.

#### 3. 2009ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko eta finantzarioa

Beriaingo Udala da Morelucea, S.A.U. sozietatearen akziodun bakarra, zeina 60.102 euroko kapital sozialarekin eratu baitzen 2005ean.

Etxebizitzaren sustapenak hasieran ordainketa handiak egin behar izatea dakar, lursailak, urbanizazioa eta etxebizitzaren eraikuntza ordaindu ahal izateko. Hasieran jarritako diru hori epe ertainean berreskuratzen da, etxebizitza horiek saltzen direnean. Jarduera hori finantzatzeko, Morelucea sozietatea kapital-zenbateko oso txikiaz hornitu da, eta, hortaz, ezinbestean jo behar du kanpoko finantzaketara (etorkizuneko jabeen aurrerakinak eta maileguak).

Horrenbestez, haren balantze-egoerak desoreka handia du; izan ere, 2009an, sozietatea etxebizitza horiek eraikitzeke fasean zegoen, eta, hartara:

- Sozietatearen 2009ko abenduaren 31ko aktiboa –19,5 milioi euro– osatzen dute, batik bat, izakinek (hiri-lurzoruak eta abian diren sustapenek, 18,7 milioi euroko balioarekin), administrazio publikoetatik kobratu beharreko saldoek (itzuli beharreko BEZa) eta diruzaintzak (bankuko kontu korrontetako saldoak).

- Pasibo ez korrontea edo epe luzeko zorra 3,3 milioi eurokoa da, eta pasibo arrunta edo epe motzeko zorra, berriz, 16,2 milioi eurokoa.

- 2009ko abenduaren 31ko ondare garbia sozietatearen funts berekiekin bat dator, eta minus 4.125 eurokoa da, 2009an izandako galeren ondorioz da (64.242 euro). Inguruabar horren eraginez, sozietateak bere ondare-oreka berrezarri behar du, desegite-kausan erori nahi ez badu, Kapital Sozietateei buruzko Legeko 363.d) artikulua ezartzen duenaren arabera; hori dela eta, Beriaingo Udalak (akziodun bakarrak) 2010eko irailean erabaki du 64.242 euroko ekarpen bat egitea, eta egin egin du, arestian adierazitako galerak berdintzeko.

## V. 2009ko FINANTZEN EGOERA-ORRIEN LABURPENA

Ondotik doa udalaren eta sozietatearen finantzen egoera-orrien laburpen bat, kontuan hartzen duena Ganbera honek ez duela auditoriarik egin 2008ko ekitaldiari buruzko informazioen gainean.

### V.1. UDALAREN 2009ko KONTUA

#### V.1.1. 2009ko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria

Gastuen kapituluak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko betebeharrak	Betea, %	Ordaindutakoa (%)	Ordainketak (%)	Ordaintzeko dagoena
1. Langile gastuak	848.363	36.691	885.054	884.420	% 100	847.377	% 96	37.043
2 Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak	1.441.811	39.150	1.480.961	1.477.116	% 100	1.357.193	% 92	119.923
3. Finantza-gastuak.	60.150	0	60.150	52.525	% 87	52.525	% 100	0
4. Transferentzia arruntak	377.700	26.889	404.589	397.099	% 98	378.637	% 95	18.462
5. Inbertsio errealak	1.599.766	1.262.224	2.861.990	2.808.728	% 98	1.505.559	% 54	1.303.169
6. Kapital transferentziak	50.486	5.000	55.486	54.819	% 99	8.603	% 16	46.216
7 Finantza-aktiboak	60	0	60	0	% 0	0	-	0
8. Finantza-pasiboak	225.000	0	225.000	90.003	% 40	90.003	% 100	0
Gastuak, guztira	4.603.336	1.369.954	5.973.290	5.764.710	% 96,5	4.239.897	% 73,5	1.524.813

#### Diru-sarreraren egoera-orria

Diru-sarreraren kapituluak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako eskubide garbiak	Betea, %	Kobratutakoa	Kobrantsak (%)	Kobratzeko dagoena
1. Zuzeneko zergak	962.000	0	962.000	942.075	% 98	858.386	% 91	83.689
2. Zeharkako zergak	1.000.000	0	1.000.000	297.505	% 30	225.654	% 76	71.851
3. Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	258.371	0	258.371	374.483	% 145	351.942	% 94	22.541
4. Transferentzia arruntak	976.500	43.590	1.020.090	1.075.756	% 105	1.067.150	% 99	8.606
5. Ondare diru-sarrerak eta herri ondasunen aprobetxamendukoak	24.000	0	24.000	16.346	% 68	16.346	% 100	0
6. Inbertsio errealen besterentzea.	157.600	0	157.600	0	% 0	0	-	0
7. Kapital-transferentziak	1.224.865	885.477	2.110.342	2.069.726	% 98	827.415	% 40	1.242.311
8. Aktibo finantzarioak	0	144.442	144.442	0	% 0	0	-	0
9. Pasibo finantzarioak	0	296.445	296.445	1.500.000	% 506	1.500.000	% 100	0
Diru-sarrerak, guztira	4.603.336	1.369.954	5.973.290	6.275.891	% 105	4.846.893	% 77	1.428.998

**V.1.2. 2009ko aurrekontu emaitza**

Kontzeptua	2008	2009
Aitortutako eskubideak	4.166.151	6.275.891
(Aitorturiko betebeharrak)	-4.596.972	-5.764.710
Aurrekontu-emaitza	-430.821	511.181
(Finantzaketaren desbideratze positiboak)	-9.480	-725.656
Finantzaketaren desbideratze negatiboak	41.098	21.873
Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako gastuak	183.244	97.610
Aurrekontu-emaitza doitu	-215.959	-94.992

**V.1.3. Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria 2009ko abenduaren 31n**

Kontzeptua	2008	2009
+ Kobratzeko dauden eskubideak	620.351	1.491.575
Diru-sarreraren aurrekontua: ekitaldiko aurrekontua	536.304	1.428.998
Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	149.300	119.081
Aurrekontuz kanpoko diru -sarrerak	74.725	45.250
(Diru-bilketa zaileko eskubideak)	-128.632	-101.754
Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-11.346	0
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	585.899	1.597.059
Gastu-aurrekontua: ekitaldiko aurrekontua	523.905	1.524.813
Gastu-aurrekontua: itxitako ekitaldiak	1.550	0
(Aplikatzeko dauden gastuak)	0	0
Aurrekontuz kanpoko gastuak	60.444	72.246
+ Diruzaintzako funts likidoak	174.902	842.690
+ Finantziazio-desbideratze metatu negatiboak	0	21.873
= Diruzaintzako gerakina, orotara	209.354	759.079
Finantzaketa atxikia duten gastuen ondoriozko diruzaintzako gerakina	50.412	0
Diruzaintza-gerakina, baliabide atxikiak direla -eta	0	725.656
Gastu orokorretarako diruzaintza -gerakina	158.942	33.423

**V.1.4. Egoera balantzea 2009eko abenduaren 31n****AKTIBOA**

Deskribapena	2008	2009
<b>IBILGETUA</b>	<b>19.128.824,53</b>	<b>21.988.394,06</b>
Ibilgetu materiala	16.160.914,81	17.356.327,85
Ibilgetu ez-materiala	9.565,23	9.565,23
Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	2.871.514,41	4.484.828,65
Herri-ondasunak	74.568,47	74.568,47
Ibilgetu finantzarioa	12.261,61	63.103,86
<b>ZIRKULATZAILEA</b>	<b>941.131,35</b>	<b>2.465.780,53</b>
Zordunak	766.229,81	1.623.091,01
Kontu finantzarioak	174.901,54	842.689,52
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>20.069.955,88</b>	<b>24.454.174,59</b>
Aurrekontua kontrolatzeko kontuak eta antolamenduzkoak	188.457,04	402.499,39

**PASIBOA**

Deskribapena	2008	2009
<b>FUNTS BEREKIAK</b>	<b>18.288.236,45</b>	<b>20.239.951,85</b>
Ondarea eta erreserbak	16.533.011,44	16.482.259,42
Dirulaguntzak, dohaintzak eta kapi tal-legatuak	1.755.225,01	3.757.692,43
<b>EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK</b>	<b>1.207.166,58</b>	<b>2.617.163,52</b>
Jasotako maileguak	1.207.166,58	2.617.163,52
Epe luzeko zorrak	1.207.166,58	2.617.163,52
<b>EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK</b>	<b>574.552,85</b>	<b>1.597.059,22</b>
Epe laburreko zorrak	585.899,01	1.597.059,22
Aplikatzeko dauden kontusailak	-11.346,16	0,00
<b>PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>20.069.955,88</b>	<b>24.454.174,59</b>
Aurrekontua kontrolatzeko kontuak eta antolamenduzkoak	188.457,04	402.499,39



## V.1.5. 2009ko galeren eta irabazien kontua

## Ekitaldiko emaitza arruntak

ZORRA			HARTZEKO A		
DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA 2009an:	ZENBATEKOA A 2008an:	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA A 2009an:	ZENBATEKOA 2008an
3 Hasierako izakinak	0,00	0,00	3 Bukaerako izakinak	0,00	0,000
39 Izakinen balio-galtzeen probisioak	0,00	0,00	39 Izakinen balio-galtzeen probisioa	0,00	0,00
60 Erosketak	0,00	0,00	70 Salmentak	201.660,87	96.966,90
61 Langileria gastuak	884.423,82	759.545,38	71. Ondasunaren eta enpresaren errenta	160.216,97	153.429,65
62 Finantza - gastuak	52.525,26	48.339,94	72. Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuoak	921.620,89	1.592.269,69
63 Zergak	0,00	0,00	73. Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	241.829,80	224.053,84
64 Lanak, hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	1.477.112,43,	1.578.047,16	75. Ustiapeneko diru-laguntzak	0,00	0,00
65 Gizarte prestazioak	0	0	76. Transferentzia arruntak	1.075.755,68	1.039.233,95
66 Ustiapeneko diru-laguntzak	0	0	77. Kapitalaren gaineko zergak	76.128,88	222.213,76
67 Transferentzia arruntak	397.098,95	347.888,58	78. Bestelako dirusarrerak	86.932,10	23.134,67
68 Kapital transferentziak	54.818,90	19.284,84	79. Daukaten helbururako aplikaturiko hornikuntzak	0,00	0,00
69 Amortizazio eta horniduretarako zuzkidura, ekitaldikoa	0,00	0,00	79. Daukaten helbururako aplikaturiko hornikuntzak	0	0
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	0,00	598.196,56	800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	101.834,17	0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.865.979,36</b>	<b>3.351.302,46</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>2.865.979,36</b>	<b>3.351.302,46</b>

## Ekitaldiko emaitzak

ZORRA			HARTZEKO A		
DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA 2009an:	ZENBATEKOA 2008an	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA 2009an:	ZENBATEKOA 2008an:
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	101.834,17	0,00	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	0,00	598.196,56
82 Ezohiko emaitzak (Saldo zorduna)	0,00	0,00	82 Ezohiko emaitzak (saldo hartzekoduna)	0,00	0,00
83 Balore-karteraren emaitzak (saldo zorduna)	0,00	0,00	83 Balore-karteraren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0,00	0,00
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	0,00	0,00	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	0,00	0,00
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	0,00	598.196,56	89. Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	101.834,17	0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>101.834,17</b>	<b>598.196,56</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>101.834,17</b>	<b>598.196,56</b>

**V.1.6. 2008-2009 ratioak**

Adierazlea	2008	2009
Diru-sarreraren betetze-maila	% 84,40	% 105,07
Gastuen betetze-maila	% 93,13	% 96,51
Kobrantzen betetzea	% 87,12	% 77,23
Ordainketen betetzea	% 88,60	% 73,55
Zorpetze-maila	% 3,64	% 5,27
Zorpetze-muga	% 21,08	% -1,94
Zorpetze-ahalmena	% 17,44	% -7,21
Aurrezpen garbia	% 17,44	% -7,21
Langileriaren indizea	% 16,50	% 15,34
Inbertsioaren indizea	% 38,93	% 49,67
Diru-laguntzekiko menpekotasuna	% 32,07	% 50,12
Diru-sarrerak biztanleko	1.140 €	1.717 €
Gastuak biztanleko	1.258 €	1.577 €
Diru-sarrera arruntak biztanleko	915 €	736 €
Gastu arruntak biztanleko	748 €	769 €
Tributu bidezko diru-sarrerak biztanle bakoitzeko	623 €	755 €
Finantza-zama biztanleko	33,31 €	39,00 €
Zorra biztanleko	330 €	716 €

## V.2. MORELUCEA, S.A.U. SOZIETATEAREN 2009KO URTEKO KONTUAK.

## V.2.1. Egoera-balantzea

2009ko eta 2008ko abenduaren 31ko egoera -balantzea.		
AKTIBOA	31.12.09	31.12.08
Epe luzeko finantza inbertsioak	361	361
AKTIBO EZ KORRONTEA	361	361
Izakinak	18.764.368	8.846.175
Zordunak	578.841	37.413
Inbertsioak taldeko enpresetan	0	90.000
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	150.518	2.499.671
AKTIBO KORRONTEA	19.493.728	11.473.260
AKTIBOA, GUZTIRA	19.494.088	11.473.620
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	31.12.09	31.12.08
Kapital gastuak	60.102	60.102
Erreserbak	5	5
Aurreko ekitaldietako emaitzak	10	0
Galdu-irabaziak	-64.242	10
FUNTS BEREKIAK	-4.125	60.117
ONDARE GARBIA	-4.125	60.117
Kreditu entitateekiko zorrak	3.235.322	5.529.651
Beste finantza-pasibo batzuk	78.000	0
EPE LUZEKO ZORRAK	3.313.322	5.529.651
PASIBO EZ KORRONTEA	3.313.322	5.529.651
Kreditu-entitateekiko zorrak	7.917.486	-1
Beste finantza-pasibo batzuk	-3.119	144.830
Epe laburreko zorrak	7.914.367	144.829
Hornitzaileak	4.592.501	2.825.893
Hartzekodunak	32.306	102
Administrazio publikoekiko beste zor batzuk	1.363	0
Bezeroen aurrerakinak	3.644.355	2.913.028
MERKATARITZA-HARTZEKODUNAK ETA ORDAINDU BEHARREKO BESTE KONTU BATZUK	8.270.524	5.739.023
PASIBO KORRONTEA	16.184.892	5.883.852
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	19.494.088	11.473.620

**V.2.2. Galera eta irabazien kontua**

2009ko eta 2008ko ekitaldietako galera eta irabazien kontua			2009	2008
2	Ekoizteko prozesuan edo buruturik dauden produktuen izakinen aldaketa		7.499.120	1.205.529
4	Hornidurak		-7.242.812	-711.083
5	Bestelako ustiatze diru-sarrerak		478	0
6	Langile gastuak		-4.200	0
7	Bestelako ustiatze-gastuak		-12.872	-267.327
11 bis.	Beste emaitza batzuk		2.296	1.070
<b>A</b>	<b>USTIAPEN EMAITZA</b>		<b>242.100</b>	<b>228.190</b>
12	Diru-sarrera finantzarioak		81	10
13	Gastu finantzarioak		-306.423	-228.190
<b>B</b>	<b>FINANTZA EMAITZA</b>		<b>-306.342</b>	<b>-228.180</b>
<b>C</b>	<b>ZERGA AURREKO EMAITZA</b>		<b>-64.242</b>	<b>10</b>
17	Mozkinen gaineko zerga		0	0
<b>D</b>	<b>Ekitaldiaren emaitza</b>		<b>-64.242</b>	<b>10</b>

**V.2.3. Ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria**

Ondare garbian izandako aldakete n egoera-orria. 2009ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldia					
	Eskrituratutako kapitala	Erreserbak	Aurreko ekitaldietako emaitzak	Ekitaldiko emaitza	Guztira
2007ko azken saldoa	60.102	5	0	0	60.107
Galdu-irabazien kontuaren emaitza	0	0	0	10	10
Ondare garbiaren beste aldaketa batzuk	0	0	0	0	0
2008ko azken saldoa	60.102	5	0	10	60.117
Galdu-irabazien kontuaren emaitza	0	0	0	-64.242	-64.242
Ondare garbiaren beste aldaketa batzuk	0	0	10	-10	0
2009ko azken saldoa	60.102	5	10	-64.242	-4.125

## VI. UDALARI BURUZKO IRUZKIN, ONDORIO ETA GOMENDIOAK

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko gomendio nagusiak emanen ditugu.

### VI.1. ALDERDI OROKORRAK

2008ko abenduaren 22an, hasierako onespina eman zitzaion 2009rako aurrekontuari, legezko izapideak bete ondoren. 2009ko apirilaren 24an eman zitzaion behin betiko onspena.

	Aitorturiko betebeharrak	
	2009	2008
10 Goi karguak	33.097	32.705
12 Funtzionarioak	596.643	524.601
13 Gizarte enpleguko langileak	36.691	0
16 Gizarte aseguruak, montepioko kuotak eta familia laguntza	217.989	201.111
	884.420	758.417

Udalaren 2009. urterako plantilla organikoan 20 lanpostu daude. Hasiera batez, 2008ko abenduaren 22an onetsi zen, eta haren behin betiko onspena enplegu eskaintza publikoarekin batera argitaratu zen, 2009ko apirilaren 24an.

Txosten honen eranskinean jaso da udalaren 2009ko abenduaren 31ko organigrama.

2009an bi udaltzain, administrari-laguntzaile bat eta zerbitzu anitzetako langile bat kontratatu ziren, eta, hartara, plantilla organikoak aurreikusitako lanpostu guztiak bete ziren. Administrari-

Udalaren Kontu Orokorraren edukiak ez du jasotzen udalaren eta haren partaidetzako sozietatearen kontu bateratua.

Ikuskatzeko gai dira azken lau ekitaldiak, udalak bete beharreko zerga guztietarako.

### VI.2. UDALEKO LANGILE-GASTUAK

Langileriaren kapituluan aitortutako betebeharrak 884.420 euro egiten dute; hau da, 2009an aitortutako gastu guztien ehuneko 15,3. Ehuneko 100 exekutatu dira, eta, 2008. urteko ekitaldiarekin alderatuta, ehuneko 16,6 egin dute gora.

Hona xehakapena, 2008arekin alderatuta:

laguntzailearen espedientea aztertu da (oposizio lehiaketaren prozedura bidez bete zen).

2009an, halaber, 6 pertsona kontratatu ziren, 2009ko urritik 2010eko apirilera bitarte, gizarte gaietako programa baten barruan (gizarteratze plana), eta Nafarroako Gobernuak finantzatu zuen oso-osorik. 2009ko aurrekontuaren likidazioari egotzi zaio epe horretako langileen kostu osoa –soldatak eta gizarte aseguruak–, kontuan hartu gabe gastua egiazki sorraziti zen eguna (36.691 euro). Horrek ekarri zuen 2009an 24.053 euroko gaingastua, ondoko taulan ikus daitekeenez:

	Aitorturiko betebeharrak, 2009	Sorrazitako gastua (2009ko azaroa eta abendua)	Sorrazitako gastua (2010eko urtarriletik apirilera)
Soldatak	27.330	9.362	17.968
Aseguru sozialak	9.361	3.276	6.085
Guztira	36.691	12.638	24.053

Korporazioko kideei bertaratzeagatik emandako ordainsariek 33.097 euro egiten dute. Ordainsari horiek, zeinei ez baitzaie PFEZeko atxikipenik egiten, Osoko Bilkurak onetsi zituen 2003an, horien gaineko zerga-salbuespenaren mailari buruz deus esan gabe.

Egindako iruzkin horiek alde batera utzita, langile-gastu horien gainean eta administrari-laguntzaile lanpostua oposizio bidez betetzeko espedientearen gainean eginiko azterketatik, ondorioztatzen da egoki bete direla arau indardunak.

*Hona gure gomendioak:*

- *Aurrekontuari egozteka ekitaldian egiazki sorrarazitako gastuak.*

Espedientea	Mota	Prozedura	Adjudikazioaren zenbatekoa
Udal igerilekuak: bertaratzea, zaintza, kontrola, igeriketa-ikastaroak eta sorosleak	Laguntza kontratua	Irekia, lehiaketa	75.698 (BEZa barne)

Egindako azterketatik ondorioztatzen da ezen, orokorrean, espedientearen izapidetzea kontratuei buruzko legeak betez egin dela eta berrikusitako gastuak onetsita, kontu-hartzaitzak aztertuta eta zuzen kontabilizatuta daudela. Halere, ondokoa adierazi beharra dago:

- Ikusi dugunez, 2010eko aurrekontuari egotzi zaizkio 2009an sorrarazi baina 2010aren hasieran fakturatutako zenbait gastu arrunt (gutxi gorabehera 81.000 euro). Gauza bera modu uniformearen egin ari da ekitaldiz ekitaldiko mozketan.

- Zenbait gastu errepikari urte amaieran halako zenbatekora iristen dira non kasuko kontratazio espedientea abiarazi beharko bailitzateke, nahiz eta inguruabar hori ezin den beti aurreikusi modu arrazoitu batez.

*Hona gure gomendioak:*

- *Ekitaldi mozketan saiatzea gastuak aitortzen, sortzapen printzipioari erreparatuz.*

- *Urteko gastuen bolumena aldeztu aurretik balioets daitekeen kasuetan, kasuko kontratazio espedienteak izapidetzea.*

#### VI.4. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Transferentzia arruntek 397.099 euro egiten dute 2009an, eta ehuneko 98ko betetze-maila izan dute. Aitorturiko betebeharrak guztien ehuneko 7 egi-

- *Udalaren Osoko Bilkurak erabakitzea zer tratamendu eman, zergen arloan, korporazioko kideei bertaratzeagatik emandako ordainsariei.*

#### VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntan eta zerbitzuen erosketek 1.477.116 euro egin dute 2009an; haien ehuneko 100 exekutatu da. Kapitulu honek gastuen aurrekontuko guztizkoaren ehuneko 25,6 egiten du, eta ehuneko 6,5 egin du behera 2008. urtetik.

Kapitulu horretako gastuen lagin bat aztertu dugu. Horien artean, ekitaldi honetan esleitutako hurrengo kontratazio espedientea sartzen da:

ten dute, eta ehuneko 14 igo dira 2008aren aldean.

Kapital-transferentziek 54.819 euro egiten dute guztira, eta betetze-maila ehuneko 99koa izan da; 2008aren aldean, igoera ehuneko 184koa izan da.

Transferentzia nagusiak ondokoak finantzatzen bideratu dira: oinarriko gizarte zerbitzua (117.663 euro), udal kirolegegiaren kudeaketak eragindako defizita (112.488 euro), eskualdeko garrai-orako ekarpena (64.632 euro), Beriaingo futbol taldea (46.505 euro) eta gizarte lankidetzako proiektuak (41.458 euro).

2009an, lehen aldiz, deialdi publiko bat egin zen, udal-taldeei diru-laguntzak emateko.

Egindako azterketatik ondorioztatzen da gastu horien kudeaketa egokia izan dela, oro har.

#### VI.5. INBERTSIOAK

Ekitaldian egindako inbertsioek 2,8 milioi euro egiten dute, eta behin betiko aurrekontuaren ehuneko 98 bete da. Kapitulu honek ekitaldian aitorturiko betebeharrak guztien ehuneko 48,7 egiten du, eta ehuneko 58,6 egin du gora 2008. urtearekin alderatuta.

2009an 584.473 euroko diru-laguntzak jaso dira Estatutik, Toki Inbertsioetarako Estatuko Funtsuan –E Plana– sartutako sei udal obra oso-oso-rik finantzatzeko. Administrazio-kontratazioaren

arloko Estatuko legediaren arabera izapidetu dira obra horiek, eta aldatu egin behar izan zen udalaren aurrekontua kreditua sortzeagatik, obra horien gastua nahiz jasotako diru-laguntza aurrekontuan

jasotzeko –baldintza bat zen onetsitako hasierako aurrekontuan obra horiek ez jasotzea–.

Kapitulu horretako gastuen lagin bat aztertu dugu, ondoko kontratazio-espeditenteak barne:

Espedientea	Prozedura	Adjudikazioa (BEZa barne)	Aplikatu beharreko kontratazio-legedia
Udal-igerilekuak berritzea	Irekia, komunitate-publizitatearekin	3.369.850	Foru legedia
Beriaingo Plaza Nagusia berritzea	Negoziatua, Europar Batasuneko publizitaterik gabekoa	567.472	Foru legedia
Udal hilerriko sarbideak	Negoziatua, Europar Batasuneko publizitaterik gabekoa	187.703	Estatuko legedia
Morea aintzirako sarbideak	Negoziatua, Europar Batasuneko publizitaterik gabekoa	158.323	Estatuko legedia
Iruñeko etorbideko espaloiak	Negoziatua, Europar Batasuneko publizitaterik gabekoa	105.420	Estatuko legedia
Lurrazpiko transformazio zentroa lekuz aldatzeko obrak	Negoziatua, Europar Batasuneko publizitaterik gabekoa	82.763	Foru legedia
Alaitz pasealekuko espaloia eta aparkalekuak	Negoziatua, Europar Batasuneko publizitaterik gabekoa	64.315	Estatuko legedia

Aztertutako lagina ikusita, ondorioztatzen dugu ezen, oro har, espeditenteak aplikatu beharreko kontratuei buruzko legeen arabera izapidetu direla. Dena den, ondokoa ikusi dugu:

- Zenbait obratan ez da ez kontrolatu ez teknikioki justifikatu atzerapena, obra egiteko esleitu zen epearen gainekoa. Halere, Udalak, obren zuzendaritza fakultatiboak hala eskatuta, adostasunez jasotzen ditu obrak.

*Hona gure gomendioak:*

- *Obrak egiteko epeen gaineko kontrola areagotzea, eta, kasua bada, atzerapenak behar bezala dokumentatzea.*

## VI.6. INBENTARIOA-IBILGETUA

Udalak duen inbentarioa balantzeko ibilgetuko kontabilitate-kontuetako liburu nagusietatik heldu da; horren balioa 21,9 milioi eurokoa zen 2009ko abenduaren 31n.

2003an, udal kontu-hartzaitzak inbentario bat egin zuen, gaurkotuz joan dena hurrengo urteetan egindako inbertsioekin eta besterentzeekin, gastuen aurrekontuko kapituluetan erregistratu diren zenbatekoen arabera. Prozesu automatiko hori

egiten da eskualdatutako zenbatekoen izaera aldeztetik aztertu eta araztu gabe.

2010ean, kontratu bat sinatu da sozietate publiko batekin, udal inbentarioa egin eta mantentzeko.

*Hona gure gomendioak:*

- *Udal ondasun eta eskubideen inbentarioa gaurkotzea eta onestea, eta, ondoren, ondasun guztiak eskrituratuta eta erregistratuta daudela egiaztatzea.*

- *Egoeraren balantzearen kontusailtako kontabilitate-saldoak berrikusi eta, kasua bada, erregulartzatzea, entitatearen ondasunaren osaera behar bezala erakutsi dezan.*

- *Dokumentazioaren artxiboa kontrolatzeko eta inbentarioko alden eta baje jarraipena egiteko sistema bat ezartzea, haren etengabeko gaurkotzea eta kontabilitateko ibilgetuarekin duen lotura bermatu eta bideratzeko.*

## VI.7. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

Udalaren aitortutako eskubideak, 2009an, 6.275.891 eurokoak izan dira. Ehuneko 50,6 egin dute gora 2008ko ekitaldiarekin alderatuta. Honako kontzeptuak azaltzen dira:

	Euroak		Aldearen % 2009/2008
	2009	2008	
Zuzeneko zergak	942.075	1.027.105	% 8
Zeharkako zergak	297.505	1.011.432	% -71
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerak batzuk	374.483	238.113	% 57
Transferentzia arruntak	1.075.756	1.039.234	% 3,5
Ondare diru-sarrerak eta herri ondasunen aprobetxamendukoak	16.346	25.741	% -36,5
Inbertsio errealak besterentzea	0	527.823	% -100
Kapital transferentziak eta bestelako kapital diru-sarrerak	2.069.726	296.703	% 598
Pasibo finantzarioak	1.500.000	0	
Diru-sarrerak, guztira	6.275.891	4.166.151	% 50,6

Hona aldaketa nagusien justifikazioa:

- Zeharkako zergen murrizketa lotuta dago EIOZeko eskubideen murrizketarekin; izan ere, zerga horrek 713.927 euroko murrizketa izan du, eraikuntzaren sektoreak bizi duen egoeraren ondorioz.

- Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak; izan ere, 2009an hasi zen ordainarazten industrialdearen urbanizazioaren administrazio-kudeaketagatik tasa ( 103.285 euro), bai eta zoruaren eta hegalkinen aprobetxamenduaren ondoriozko diru-sarrerak igotzeagatikoa ere.

- Kapital-transferentziak, Nafarroako Gobernuaren eta Estatuako Administrazio Orokorren diru-sarrera horiek, inbertsioak finantzatzeko direnak, igo direlako.

- Finantza-pasiboak, 1.500.000 euroko kreditu bat hartzeagatik.

Diru-sareren aurrekontuko kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, egiaztatu dugu egoki izapidetu eta kontabilizatu direla, oro har. Alabaina, ondorengo puntu hauek azpimarratu nahi ditugu:

- 2009an diru-laguntza bat jaso zen, 36.691 eurokoa, 2009ko urritik 2010eko apirilera bitarte gizarte-enpleguko 6 langile kontratatzearen kostua finantzatzeko. Diru-sarrera hori –diru-laguntzaren zenbateko osoa– 2009an aitortu da, baina 2010eko gastuak finantzatzen ditu (24.053 euro), eta aurrekontu doituaren emaitzan eta diruzaintza-ko gerakian ez da aintzat hartu zenbateko horri dagokion finantza-desbideratzea.

*Hona gure gomendioak:*

- *Diru-sarrerak sortzapenaren arabera aitortzea eta egozte aurrekontuan.*

- *Aurrekontuen egoera-orriak izan diren finantza-desbideratzei doitzea.*

#### VI.8. GORABEHERAK

Udalak dioenez, epaiketa arrunt bat zen 2009ko abenduaren 31n irekita zegoen prozedura judicial bakarra, zeinean lokal batzuen titulartasuna erreklamatzeko baitzen, udalak jaso eta berarekin izanen balira bezala erabilitako lokal batzuek; lokal horiek, ordea, merkataritza-sozietate batek beste bati eskualdatu zizkion gero, eta udalak ez zuen horren berri izan eta ez zuen deus egin eskualdatze-ekritura eman zen unean. Epaia errekurrituta dago, Iruñeko Probintzia Auzitegiko Bigarren Sekzioan jarritako gora jotzeko errekurtsio baten bidez.

#### VI.9. HIRIGINTZA

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea finkatzen zuen, 2006ko apirilera artekoa, indarreko plangintzak homologatu eta egokitzeko.

2009ko abenduaren 31n indarrean zegoen Udalaren Hirigintza Plana, 1999an behin betikoz onetsia.

Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legean (LAHFL) ezarritakoari egokitzeko lana 2010ean egiten ari dira. 2010eko abuztuaren 18an, Beriaingo Udalak hasiera batez onetsi zuen Udalaren Plan Orokorra, zeina 2010eko abuztuaren 18ko NAOan argitaratu baitzen. Horrenbestez, hurrengo bi hilabeteetan jendaurrean paratuta egon da.



## VII. MORELUCEA SOZIETATEARI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

### VII.1. SOZIETATEAREN JARDUNA

Beriaingo Udala da 2005ean 60.102 euroko kapital sozialarekin eraturako sozietatearen akzio-dun bakarra, zeinaren xedea baita Beriaingo Udal Planeko UD-1 unitatean etxebizitzak sustatzea.

Bere jarduna garatzeko, sozietateak unitate hori osatzen duten lurak erosi zituen:

a. Beriaingo Udalari, kostubidezko lagapen bidez eta lurzatie salerosketa bidez, 4.257.508 euroko zenbateko metatuan (zergak kenduta)

b. Zenbait jabetari, salerosketa eta trukaketa bidez (eraiki beharreko aparkalekuen kontura), 3.836.260 euroko zenbateko metatuan (zergak kenduta)

Lehen fase batean babes ofizialeko 113 etxebizitza eraikitzea aurreikusten da; bigarrenean, berriz, prezio tasatuko 110 etxebizitza libre.

Sozietateak ez dauka langilerik plantillan, eta hirugarrenekin kontratatzen ditu bere administrazio-jarduerak eta etxebizitzak sustapena.

Sozietatearen kapitala 60.102 eurokoa denez eta sustapenen kostuaren hasierako aurrekontua handia denez, etxebizitzak esleipen-hartzaileen aurrerakin bidez eta banku-entitate batek emandako mailegu eta kredituen bidez egiten da finantzaketa. Maileguak hipotekazkoak dira, eta bermeak, berriz, aurrena hiri-orubeak eta hurrena, eraikitzen hasi ondotik, eraikitzen ari diren etxeak. Etxebizitzak emandakoan, erosleak maileguan subrogatzen dira. Maileguetako batek interes-tasen estaldura-kontratua du.

Babes ofizialeko 113 etxebizitzaren lehen fasea eraikitzea 2008ko maiatzean esleitu zen, 10,7 milioi euroan (BEZik gabe). Une honetan esleitura, eskrituratuta eta kobratuta daude lehen faseko etxebizitza guztiak, eta saltzeke daude merkataritza-lokalak, garajeak eta trastelekuak. Sustapena finantzatzeko mailegua ere kitatu da.

2008ko azaroan, lehen fasearen eraikitzearan esleipen-hartzaile berari esleitu zitzaion prezio tasatuko 66 etxebizitza libreak eraikitzea (bigarren fasearen zati bat, hasiera batean 110 etxebizitzakoa zena), 8,8 milioi euroan (BEZik gabe).

Esleitu ostean eta eraikitzen hasi aurretik erabaki zen, etxebizitza-merkatuaren egungo egoera ikusita, aurreikusitako sustapena aldatzea, babes ofizialeko etxebizitza gehiago eraikitzeko; halatan, hasierako proiektua, prezio tasatuko 110 etxebizitzakoa, sustapen berrietara egokitzea esleitu zen;

horren arabera, bigarren fasean 108 etxebizitza eraiki behar ziren (prezio tasatuko 22 etxebizitza libre eta babes ofizialeko 86 etxebizitza), eta hirugarren fasea zehaztu gabe zegoen.

2010eko martxoan, Morelucea, S.A.U. sozietatearen administrazio kontseiluak esleipen-hartzaile horri berari esleitu zion 108 etxebizitza horien eraikuntza, irizita, sozietatearen aholkulari juridikoak aldeko txostena egin ostean, prezio tasatuko 66 etxebizitza libreen esleipenari buruzko kontratua- ren aldaketa zela hori.

Adostutako prezioak zati finko bat -9,6 milioi euro, BEZik gabe- eta zati aldakor bat -1,7 milioi eurokoa, BEZik gabe- jasotzen zituen. 2010eko ekainean hasi ziren eraikitzen bigarren fasean aurreikusitako 108 etxebizitza horietako lehendabiziko 22ak.

2009ko abenduan esleitu ziren Beriaingo Udal Planeko US 1 unitatea urbanizatzeko proiektuan jasotako obrak. 495.228 euroko kontratua (BEZik gabe) sinatu zen, zuinketa-aktaren egunetik aitzina 77 egunetan egiteko epea jarrita. Aurreikusitakoez gain beste obra gehigarri batzuk sartu zirenez (kolektoreak, kanalizazioak eta abar), aldeko txosten teknikoa egin ostean, esleipen-hartzaileekin hasieran sinatutako kontratua handitu zen (874.439 euro, BEZik gabe). Txosten hau egin den egunean bukatu gabe daude urbanizazio lanak.

### VII.2. URTEROKO KONTUAK

2008ko eta 2009ko urteko kontuak 2010eko ekainaren 10ean onetsi zituen Beriaingo Udalak (akziodun bakarrak), eta 2010eko abuztuan utzi ziren gordailuan Nafarroako Merkataritza Erregistrotan.

#### a. 2009ko abenduaren 31ko egoera-balantzearen gaineko iruzkinak:

Ondokoek osatzen dute batik bat 2009ko abenduaren 31ko aktiboa: izakinek (hiri-lurzoruak eta abian diren sustapenak), administrazio publikoetatik kobratu beharreko saldoak (itzuli beharreko BEZa) eta diruzaintzak (bankuko kontu korrontetako saldoak).

Izakinak baloratzeko baliatzen dira erositako lurzatie erosteta-kostua (Beriaingo Udal Planeko US 1 unitateko 1-7 lurzatiak) eta sustapeneko lehen faseko eraikuntza (babes ofizialeko 113 etxebizitza). Izakin horiek, gure ustez, gainbalioetsita daude, 416.228 euroan hain zuzen; izan ere:

- Izakinen balioari ezin egotzi zaizkion gastuak, hala nola aholkulariak, publizitatea, kontseilarien dietak, bulegoko materiala eta esleipen-hartzaileei

emandako abalen finantza-gastuak, 127.569 eurokoak izan ziren 2009ko abenduaren 31n.

- Lehen fasearen emaitzaren estimazioak 288.659 euroko galera ematen du, 2010eko abuztuaren 31n saltzeke zeuden etxebizitzak, lokalen, trastelekuen eta garajeen prezioa balioetsi ondoren.

2009ko abenduaren 31n exekutatuak zenbatekoa kontabilitatean erregistratuak baino 1,6 milioi euro gehiagokoa zen, batik bat 2009ko urriko, azaroko eta abenduko eraikuntza-lanen obra-ziurtagiriei zegozkienak, enpresa eraikitzaileak 2010ean fakturatu baitzituen.

2008ko abenduaren 31ra bitarte, izakinen beste balio bat balira bezala sartzen ziren egindako gastuak, eta sozietateak emaitza nulua edo zerotik gertukoa zeukan. 2009an ez ziren gastu guztiak egotzi (aholkulariak, kontseiluko kideen dietak eta kalte-ordainak), eta sozietateak 64.242 euroko galera izan zuen.

Ondokoek osatzen dute batik bat pasiboa 2009ko abenduaren 31n:

- Banku-entitate batek emandako bi hipoteka-mailegu (eraikuntzen edo lursailen bermarekin), hurrenez hurren finantzatzen dutenak babes ofizialeko 113 etxebizitzaren sustapeneko lehen fasea -7,9 milioi euro; epemuga 2010ean du, etxebizitzaren entrega egiten denean, etxebizitza horien esleipen-hartzaileek itzulketa edo subrogazioa eginez eta prezio tasatuko 22 etxebizitza libreko eta babes ofizialeko 86 etxebizitzako bigarren fasea eraikitzen den hiri-lurzorua -3,2 milioi euro eta 5,5 milioi euroko egungo mugarekin; epemuga 2044an du, edo, bestela, eraiki beharreko etxebizitzaren entrega egitean, aurreikusita baitago epemuga hori luzatzea bigarren faseko eraikuntza finantzatzeko.

- Beraingo Udalarekiko zorra, 2006an US 1 unitateko lursailak erostetik ordaintzeke dauden 2,3 milioi eurokoa, ez duena interesik sorrarazten.

- Egin beharreko eraikuntzetan aurreikusitako aparkalekuen entregaren truke US 1 unitateko lursailak eroste aldera egindako trukatzeko titularrak hartutako zorra, 2,4 milioi euroan balioetsia (161 trukatzeko, bakoitza 15.025,30 euroan, 2006ko eroste-balioa).

- Babes ofizialeko etxebizitzaren hartzaileengandik jasotako aurrerakinak, etxebizitzaren erosketa dela eta (3,6 milioi euro).

- Prezio tasatuko etxebizitza libreen erreserba gisa jasotako fidantzak, etxebizitza horien balizko erosleek jarriak.

2009ko abenduaren 31ko ondare garbia sozietatearen funts berekiekin bat dator, eta minus 4.125 eurokoa da, 2009an izandako galeren ondorioz (64.242 euro). Inguruabar horren eraginez, sozietateak bere ondare-oreka berrezarri behar du, desegite-kausan erori nahi ez badu, Kapital Sozietateei buruzko Legeko 363.d) artikulua ezartzen duenaren arabera; hori dela eta, Beraingo Udalak (akziodun bakarrak) 2010eko irailean erabaki du 64.242 euroko ekarpen bat egitea, eta egin egin du, arestian adierazitako galerak berdintzeko.

#### **b. 2009ko ekitaldiko galera eta irabazien kontua**

Hornikuntza-gastua, 7,2 milioi eurokoa, bat dator nagusiki US 1 unitatearen urbanizazioarekin lotutako kostuekin (523.329 euro) eta etxebizitzaraikuntzarekin (6.489.089 euro).

2009ko beste ustiapen-gastu batzuk dira aholkularitza ekonomiko eta juridikoa, banku-zerbitzuak eta tributuak (12.872 euro).

Finantza-gastuak banku-maileguen interes garbiei dagozkie (306.423 euro 2009an eta 228.000 euro 2008an).

Diru-sarrerak heldu dira, nagusiki, izakinen aldaketatik, lursailei eta ekitaldian zehar abian diren eraikuntzei egotzitako kostuengatik (7,5 milioi euro 2009an eta 1,2 milioi euro 2008an).

Galerak (64.242 euro) dagozkie izakinen beste balio bat balira bezala egotzi ez ziren gastuei.

Jarduera-bolumena 2008an baino askoz handiagoa izan zen 2009an; izan ere, 2008ko ekainean hasi ziren eraikitzen sustapeneko lehen fasea osatzen zuten babes ofizialeko 113 etxebizitzak.

Egindako azterketaren ondorioz, ondokoa geratu da agerian:

- 2009an gastuak erregistratu dira, abian diren sustapenetako izakinen aldaketagatik diru-sarrerak eta hornikuntza direla-eta, etxebizitzaren eraikuntzari lotuak; 1,3 milioi eurokoak dira gutxi gorabehera, eta 2008ko urrian, azaroan eta abenduan egindako obra-ziurtagiriekin lotutako fakturei dagozkie batik bat. Aitzitik, ez dira erregistratu etxebizitzaren eraikuntzarekin lotutako gastuak (1,6 milioi euro gutxi gorabehera), 2009ko urrian, azaroan eta abenduan egindako obra-ziurtagiriekin lotutako fakturei dagozkienak.

- Arestian adierazi den bezala, ez da izakinen balorazioari buruzko inolako zuzenketarik aitortu.

- Kontseiluko kideen dietak langile-gastu balira bezala aurkezten dira, nahiz eta kanpoko zerbitzu izan.

- Interes-tasaren estalduraren ondorioa diru-sarrera gisa erregistratzen da “beste emaitza batzuk” kapituluan, minus finantza-gastu gisa aurkeztu beharrean.

### c. 2009ko memoria

Memoriak, oro har, kontabilitate arloko araudi indardunak eskatzen duen informazioa jasotzen du. Kontuan hartu beharrekoak dira Kontabilitate Plan Orokorra higiezin enpresei egokitzeari buruzko berariazko arau indardunak, eta ondokoak jaso behar dira bertan:

- Izakinak saltzeko eta erosteko konpromiso irmoak.

- Izakinen azken erabileraren arabera xehakitzea izakinak (bizileku eraikinak), orubeak bereiziz.

- Izakinen eskuragarritasunerako mugak, bermeak eta abar direla-eta, zer kontusaili eragiten dioten eta denboran zenbat luzatuko diren zehaztuz.

- Izakin gisa kapitalizatutako maileguen interes zenbatekoa

- Maileguen batez besteko interes tasa

### VII.3. KONTRATAZIOA

Sozietatea 2005ean eratu zenetik egindako kontratazio nagusiak izan dira aurreikusitako sustapenen kudeaketari dagozkionak, sustapenen eraikuntzari dagozkionak, zeinak hasiera batez jasotzen baitzuen etxebizitzak eraikitzea eta saltzea, lehen fase batean babes ofizialeko 113 etxebizitza eta bigarren batean prezio tasatuko 110 etxebizitza libre eta Udal Planeko US 1 unitatearen urbanizazioa.

Kontratazio espedienteen azterketak ondokoak jarri du agerian:

#### a. US 1 unitatearen garapenaren eta kudeaketaren aholkularitza eta laguntza teknikoa.

Sustapenaren kudeaketaren esleipena lehiaketa publiko bidez egin zen 2006ko martxoan, prozedura irekiaren bidez eta NAO n argitaratuta.

Administrazio baldintzen orriak ez du lizitazio muga zehazten, muga hori zehazteko zailtasun teknikoa dela eta; esleipen-hartzaileak bere eskaintzan ezartzen duena izan da prezioa. Aurkeztu zen lizitatzailerak bakarri egin zitzaion esleipena, 3.361.748 euroan hain zuzen ere, prezio

horretan bereiziz kontratuak hartzen dituen kontzeptu ezberdinak.

Kontratuak xede ditu birzatatzea, urbanizazio eta etxebizitzaren eraikuntza proiektuak egitea nahiz obra zuzendaritza eta sustapenaren kudeaketa integrala; egiteko epeari dagokionez, epea lotuta dago unitate horretako etxebizitzaren sustapen, eraikuntza eta urbanizazio obraren bukaerari.

Administrazio Publikoaren Kontratuei buruzko 10/1998 Foru Legeak arautzen zuen kontratu horren esleipena; horren arabera, administrazio batek zuzenean zein zeharka merkataritza-sozietate bateko kapitalaren gehiengoan parte hartzen baldin badu, merkataritza-sozietate hori publikotasun-, konkurrentzia-, gardentasun- eta objektibotasun-printzipioei egokitu beharko zaie kontratuak sinatzean. Gure iritziz, prozesu honetan printzipio horiek bete dira.

Txosten hau egin den egunean, kontratu horrek indarrean dirau, etxebizitzaren sustapena eta eraikuntza oraindik ere garatzen ari direlako.

#### b. US 1 unitatean babes ofizialeko 113 etxebizitza eraikitzea

Kontratu hori eta aztertutako hurrengoak Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeko II. Liburuan xedatutakoari lotuta daude. Prozedura ireki publikitadeduna aplikatzen da Nafarroako Kontratazio Atarian eta Europako Erkidegoetako Aldizkarian, eta lizitazio prezioa 11,3 milioi eurokoa da (BEZik gabe).

Prozesuan 29 eskaintza aurkeztu ziren guztira, eta 10.729.953 euroan esleitu zen (BEZik gabe), 22 hilabetean egiteko epearekin. Esleitzeko irizpideen artean, eskaintza ekonomikoari ehuneko 40ko balioa eman zitzaion.

Obraren harrera 2010eko apirilean egin zen, eta esleipen-hartzaileak fakturatutako zenbatekoa 10.853.780 eurokoa izan zen azkenean.

#### c. US 1 unitatean 108 etxebizitza eraikitzea (babes ofizialeko 86 eta prezio tasatuko 22 etxebizitza libre)

Hasierako proiektuak prezio tasatuko 110 etxebizitza libre eraikitzea jasotzen zuen. 2008ko azaroan, Nafarroako Kontratazio Atariko eta Europako Erkidegoetako Aldizkariko publikitatearekin egindako prozedura ireki bidez lizitatu zen prezio tasatuko 66 etxebizitza librearen eraikuntza (hasiera batean 110 etxebizitza libre egitea jasotzen zuen bigarren faseko zati bat), 9,4 milioi euroan (BEZik gabe) eta 24 hilabetean egiteko epearekin.

Prozesuan 18 eskaintza aurkeztu ziren guztira, eta 8.793.524 euroan esleitu zitzaion (BEZik gabe)

lehen faseko enpresa berari. Eskaintza ekonomikoari ehuneko 40ko balioa eman zitzaion.

Ez da jasota ageri esleipen horri buruzko kontratua egin izana; izan ere, hasiera batean aurreikusitako sustapena aldatzea erabaki zen, babes ofizialeko etxebizitza gehiago eraikitzeko; halatan, hasiera batean egin beharreko prezio tasatuko 110 etxebizitzatik guztira 108 etxebizitzara igaro zen: prezio tasatuko 22 etxebizitza libre eta babes ofizialeko 86.

Hasierako proiektua egokitu ostean, 2010eko martxoan, Morelucea, S.A.U. sozietatearen administrazio kontseiluak esleipen-hartzaile horri berari esleitu zion 108 etxebizitza horien eraikuntza –11.304.100 euroko prezioan, BEZik gabe–, irizita, sozietatearen aholkulari juridikoak aldeko txostena egin ostean, hasierako 110 etxebizitzaren esleipenari buruzko kontratuaren aldaketa zela hori. Hain zuzen ere, Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legeko 105. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dira: aldaketak ez du kontratuaren xedea aldarazi, ezusteko inguruabarrak gertatzen dira, ez dago hasierako proiektutik bereizterik eta aldatketen zenbateko metatua gehienez ere kontratuaren esleipen prezioaren 100eko 50 da.

Halere, gure ustez, kontratuaren xedean eta prezioan muntako aldaketa gertatzen da; hortaz, hobe izanen zen esleipen prozedura berri bat egin izan balitz, nahi eta, Udalak txostenari egindako alegazioetan nabarmendu bezala, izaera sozialeko arrazoiak eta ezusteko inguruabarrak gertatu zirenen arabera komeni baitzen kontratua hasierako esleipen-hartzaileari esleitzea, sustapena gehiegi atzera ez zedin .

2010eko ekainean hasi ziren eraikitzen bigarren fasean aurreikusitako 108 etxebizitza horietako lehendabiziko 22ak.

#### **d. US 1 unitatearen urbanizazioa**

2009ko abenduan esleitu ziren, Europako Erki-degoan publizitatea egin gabeko prozedura negoziatuaren bidez eta alde zuzenetik 4 enpresari gonbita eginda, Berriaingo Udal Planeko US 1 unitatea urbanizatzeko proiektuaren separatan jasotako obrak. 495.228 euroko kontratua (BEZik gabe) sinatu zen, zuinketa-aktaren egunetik aitzina (2010eko urtarrilaren 13an) 77 egunetan egiteko epea jarrita.

Hasieran aurreikusitakoez gain obra osagarriak egin behar izan zirenez (kolektoreak, kanalizazioak eta abar), 2010eko maiatzean obra horiek esleitu zitzaizkion lizitatuak horri berari, obraren kostu osoa 874.439 euroan (BEZik gabe) balioesten zuen txosten tekniko bat oinarri; kostu horretan, hasierako esleipeneko beherakada ehuneko bera aplikatu zitzaion, eta azken zenbatekoa, hortaz, 712.240 eurokoa izan zen (BEZik gabe). Enpresaren aholkulari juridikoaren txostenarekin bat, zenbateko berri horrek ez du ehuneko 50 gaintzen hasierako esleipenaren zenbatekoa –ehuneko, zehazki, ehuneko 44koa da–, eta, horrenbestez, justifikatuta dago hasierako kontratua zabaltzea, Kontratuari buruzko Foru Legeko 105. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Txosten hau egin den egunean ez da obraren harrera oraindik egin.

#### **VII.4. EGOERA FISKALA**

Tributu-agintariak ikuskatzeko gai dira azken lau ekitaldiak, sozietateak bete beharreko zerga guztietarako. Zerga nagusiak dira BEZa, EIOZa, Ondare-eskualdaketen gaineko Zerga, PFEZa eta Sozietateen gaineko Zerga.

#### **VII.5 GORABEHERAK**

Morelucea, S.A.U. sozietatea, adierazi digutenez, ez dago prozedura judizialean sarturik.

Egin beharreko eraikuntzetan aurreikusitako aparkalekuak entregatzearen truke US 1<sup>(1)</sup> unitateko lursailak eskuratzeko egindako trukatzeeen titular talde batek eginiko erreklamazio bat dago, zeinaren bidez sozietateari eskatzen baitiote hitzarmen bat egin dezan, bere gain hartutako betebeharrak beteko dituela ziurtatzeko, aparkalekuaren entregaren bidez edo kontratuak kalteordainen bidez suntsiaraziz.

Sozietateak emandako informazioaren arabera, negoziatzen jarraitzen dute, baina akordiorik lortu gabe, batez ere sozietateak mahai gainean jarritako proposamenari aurre egiteko finantzaketarik ez dagoelako (proposamenak jasotzen zuen 2006ko ekainean sinatutako trukatzeko-kontratuak baliorik gabe uztea, garajeak egiteko konpromisoa onartzea eta 18.000 euroko kalte-ordaina ematea aparkalekuari uko egiten diotenei).

(1) Udalak aurkeztutako alegazioekin bat aldatutako paragrafoa

## VII.6 GOMENDIOAK

Aurreko iruzkinetatik honako gomendio hauek ondorioztatzen dira:

- *Kapital soziala oso murrizta da, garatzen duen jardueraren bolumenaren eta izaeraren alboran. Galerak izanez gero, 2009an gertatu den bezala, oso litekeena da sozietatea desegiteko egoeran egotea, bere kapital sozialaren erdia baino gutxiagoko ondare garbia edukitzeagatik, eta jarduketak egin beharra izatea ondare-oreka berrezartzeko; horrenbestez, komenigarria izanen litzateke kapital soziala handitzea, gisa horretako egoerak ekiditeko.*

- *Epe ertainerako plan estrategiko bat prestatzea, kontuan hartuta egin beharreko sustapenen gastuak eta diru-sarrerak, finantza-plan bat jasoko*

*duena finantza-beharrizanak kudeatu ahal izateko.*

- *Merkataritza-araudia betetzea, urteko kontuak legeak ezarritako epearen barruan formulatzeko, onesteko eta erregistratzeko.*


- *Kontabilitate-irizpide egokiak aplikatzea abian diren sustapenetako izakinen balorazioan eta urteko kontuen memoria taxutzean, kontuan hartuta higiezin enpresei aplikatu beharreko arau partikularrak.*

Txosten honen arduradun den auditore Ignacio Cabeza del Salvador jaunak proposatuta egin da lan hau, araudi indardunak ezarritako tramiteak bete ondoren.

Iruñean, 2010eko abenduaren 20an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

**Eranskina. Udalaren organigrama, 2009ko abenduaren 31n**



### **BERIAINGO UDALEKO ALKATEAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**

Alegazio hau berariaz egiten zaio Comptos Ganberak Morelucea, S.A.U. sozietatearen kudeaketari buruz eginiko behin-behineko txosteneko VII-3 ataleko C. letran (31. orrialdea) jasotzen den balorazioa, non ondokoa esaten baita:

*“Halere, gure ustez, kontratuaren xedean eta prezioan muntako aldaketa gertatzen da; hortaz, hobe izanen zen esleipen prozedura berri bat egin izan balitz.”*

Balorazio hori Beriaingo US 1 unitatean 108 etxebizitza (babes ofizialeko 86 eta prezio tasatuko 22 etxebizitza libre) eraikitzeke esleipen prozedurari buruzkoa da.

Iruzkina egin da 2010eko martxoan erabaki zelako 108 etxebizitza horiek eraikitzeke kontratua (11.304.000 euroan, BEZik gabe) esleitzea 2008ko azaroan esleipena egin zitzaion hartzaile berari. Orduan, 66 etxebizitza libre eraikitzeke proiektua esleitu zitzaion (unitate horretan 110 etxebizitza libre eraikitzeke proiektuaren lehen fasea), 8.793.524 euroan, BEZik gabe.

Morelucea, S.A.U. sozietatearen administrazio kontseiluak egin zuen esleipena 2010eko martxoan; alegia, 2008ko azaroan hasierako esleipena egin zuen kontratazio organo berak egin zuen.

Morelucea sozietatearen lege-aholkulariak aldeko txostena eman ostean egin zen esleipena. Txostenean onartzen da hasierako kontratu-esleipenaren xedea aldatu dela, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 105. artikuluan aurreikusitako inguruabarrek bat datorrena; izan ere, foru lege horrek esleipenaren xedea aldatzeko aukera ematen du, baldin eta xede sozial bati erantzuten badio, ezusteko inguruabarrak gertatzen badira eta aldaketen zenbateko metatuta gehienez ere kontratuaren esleipen prezioaren 100eko 50 bada.

Ganberaren txostenean esaten da xedeari eta kontratuari dagokienez muntako aldaketa gertatzen dela; ez da zehazten, ordea, zertan oinarritzen den iritzia hori. Udala ez dator bat iritzia horrekin, zeren, egia den arren bi kontratu horiek ez datozela guztiz bat xedeari eta prezioari dagokienez, ez baitago muntako aldaketarik.

Aitzitik, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legeko 105. artikuluan aurreikusitakoa ematen da argi eta garbi, artikulua horretan ezartzen baita inguruabar horiek gertatzen direnean ez dela muntako aldaketarik gertatzen, eta hori horrela da hain zuzen ere:

1 a) Argi baitago, txostenetik ondorioztatzen den bezala, esleipen berritzearen zenbatekoa ez dela hasierako kontratuaren 100eko 50etik goitiko (11,3 milioi, hasierako 8,8 milioiren aldean).

2) Kontratu berriak ageriko xede sozial bati erantzuten baitio, ondoko inguruabarrek frogatzen dutenez:

a) Eraiki beharreko babes ofizialen etxebizitza kopurua handiagoa izatea, etxebizitza bat izateko aukerak areagotuz hartara.

b) Egin beharreko eraikuntzetan aurreikusitako aparkalekuen entregaren truke US 1 unitateko lursailak eroste aldera egindako trukatzeeen titular talde batek eginiko erreklamazioari azkarrago erantzuteko aukera.

c) Aukera izatea, orobat, azkarrago erantzuteko 22 etxebizitza libreak erosi zituzten Beriaingo bizilagunei, zeinak 2008. urtearen hasieran hitzartu baitzuten sozietate publikoarekin etxebizitzaren erosketara, aurretiaz seinale bat ordainduta; izan ere, bi urte baino gehiago daramate zain, ea kontratu hura noiz betetzen den.

Herriko bizilagun horiek uko egin zieten 2006ko abenduan beren aparkaleku zaharrei (kotxetegiei), eta bizilagun horietarik gehienak aski adintsuak direnez gero, ezin izanen dituzte baliatu bere eskubideak harik eta obrak bukatu arte –obrak egiteko epea bi urte ingurukoa izanen da, egiten hasten direnetik zenbatzen hasita–. Hartara, bizilagun horiekiko betebeharrak, beharrezkoa egiten dute xede sozial justifikatu bati erantzutea, eta ez udalak ez haren sozietate publikoak ezin dute hori aintzat hartu gabe utzi, zeren atzerapenak arazo sozial nabarmena eragiten baitu, eta arazoa are eta larriagoa izanen zen baldin eta esleipen-prozedura berri bat abiarazi izan balitz. Hortaz, Morelucea sozietatearen ustez, Udalaren menpeko enpresa publikoa den aldetik, ageriko interes sozialeko udal-arazo bat da egiteko epea kasurik onenean 60 hilabetekoa izatea –hasiera batean, 30 hilabetekoa izatea aurreikusi zen–, eta hori ezin da albo batera utzi Kontratu Publikoei buruzko Foru Legeak aipatzen duen “xede sozial bati erantzutea” baloratzerakoan.

3) “Ezusteko inguruabarrak” gertatzen baitira, Ganberaren txostenean berean jasota ageri den bezala, bertan adierazten baita “erabaki zela, etxebizitza-merkatuaren egungo egoera ikusita, aurreikusitako sustapena aldatzea, babes ofizialeko etxebizitza gehiago eraikitzeke”. Halatan, udal honen iritziz –Morelucea sozietateak ere hala iritzia bere garaian–, behar bezala frogatuta dago etxebizitza librearen merkatua bat-batean eta uste-

kabeen erori zela, bereziki 2008. urtearen hasieratik frogatu denez.

Salmentak eta, horrenbestez, eskaria erori izana hainbat faktoreri zor zaio, eta faktore horiek jendaurrean aztertu izan dituzte ez soilik hedabide espezializatuek, ezpada hedabideek oro har; hortaz, ondoriozta daiteke ezusteko gertakari bat izan dela, garrantzi publiko nabarmena izan duena eta epe labur batean gertatu dena bereziki, higiezinaren krisiaren eta finantza-krisiaren ondorioz, Estatu Batuetan “sub prime” izeneko higiezin-kredituen polizak egoteagatik.

Izan ere, ezusteko inguruabar horiek Nafarroako Gobernua eta Legebiltzarra behartu zuten inguruabar horiei erantzute aldera berariazko foru lege bat lehendabizi proposatu eta ondoren onestera: 6/2009 Foru Legea.

4) Bigarren kontratua lehendabiziko kontratuari lotuta dago.

Biak ala biak dira proiektu bererako, ekipo tekniko berak egindako etxebizitza-eraikin kolektibo batzuetarako eta lurzati eraikigarri bererako. Lehendabizikoa proiektu horrekiko partziala da, eta bigarrena osoa.

Hortaz, ez dago aldaketarik bien obra-unitateen zenbatekoari dagokionez, prezio hori lehendabiziko esleipenean eskainitako prezio bera baita; azkenean esleitutako prezio osoa kalkulu matematiko erraz bat eginez ateratzen da: lehen kontratuan eskainitako prezioen proiektzioa egin baita, obra unitate edo eraikitako metro kopuru handiago bati buruz. Eraikuntza- eta akabera-kalitateak antzekoak dira, eta, hortaz, azken prezioaren gaineko erabakian ez da desbideratzerik gertatu proiektua aldatzearen eraginez. Hori guztia egiazta daiteke (eta hala baloratu zuen bere garaian Morelucea sozietateak) bi kontratuen, xedeen eta prezioen arteko konparazioa eginez.

Horrenbestez, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legeko 105. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dira, eta errespetuz baina argi esan behar dugu Ganberaren txostenean ez dela argudio zehatzik ematen, xedean eta prezioan muntako aldaketa gertatu izanari buruz.

Azkenik adierazi beharra dago udalaren ustez txostenean iritzia ematean ez dela behar adina argi gelditzen zergatik defenditzen den kontratua- ren xedeari eta prezioari dagokionez muntako aldaketa gertatu dela: ea 6/2006 Foru Legeko 105. artikuluan ezarritako inguruabarrak gertatzen ez direlako den edo Morelucea sozietateko lege-aholkulariak aurkeztutako txostenean behar bezalako argudiorik ematen ez delako den; izan ere, arrazoa azken hori izanen balitz, kontuan hartu behar da, adierazi den bezala, sozietate horretako administrazio kontseiluaren ustez behar adina argudio zeudela eta alegazio honetan aipatzen diren inguruabar guztiak ere hartu zituela kontuan, esleipena behin betikoz esleipen-hartzaile berari egiterakoan, uste zutelako foru lege horretan ezarritako baldintza guztiak betetzen zirela.

Iruñean, 2010eko abenduaren 14an

Alkate-udalburua: Rafael Blanco Pena

#### **AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI COMPTOS GANBERAK EMANIKO ERANTZUNA**

Beriaingo Udaleko alkateak behin-behineko txostenari eginiko alegazioak jaso eta aztertuta, hein batean hartu dira aintzat alkateak egindako iruzkinak, eta, horrenbestez, txosteneko VII. ataleko –Kontratazioa– c. letrako kasuko paragrafoa aldatu da.

Iruñean, 2010eko abenduaren 20an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas